

**EUSKAL LITERATURAREN
BILAKAERA HISTORIKOA:
LEHEN LEKUKOTASUNETATIK XVIII.MENDERA**

Eusko Ikasgaiak ikastaroaren ikerlana

Saioa Oskoz Garde

2009ko uztaila

AURKIBIDEA

<u>1. SARRERA</u>	3
<u>2. Euskarazko inskripzio eta lekukotasun zaharrenak</u>	
- 2.1 Euskararen lehenbiziko lekukotasun idatziak	5
<u>3. XVI.MENDEA</u>	
3.1 Testuinguru historikoa	13
- Bernard Etxepare	15
- Joan Perez de Lazarraga	21
- Joannes Leizarraga	22
- Errefrau bildumak	25
<u>4. XVII.MENDEA</u>	
4.1 Testuinguru historikoa	28
- Arnaud Oihenart	30
- Sarako Eskola:	
□ Etxeberri Ziburukoa	32
□ Estebe Materre	35
□ Jean Haranburu	37
□ Pierre d'Argaignarats	38
□ Axular	39
□ Jean d'Arambillaga	42
□ Silvain Pouvreau	43
<u>5. XVIII.MENDEA</u>	
5.1 Testuinguru historikoa	44
- Iparraldea: Etxeberri Sarakoa	46
- Gipuzkoa: Larramendi eta haren eragina. Mendiburu eta Kardaberaz	48
- Nafarroa: Lizarraga Elkanokoa	54
5.2 Antzerkiaren sorrera: Barrutia eta Munibe	55
<u>6. BIBLIOGRAFIA</u>	59

SARRERA

Literatura kontzeptua zentzu zabalean hartuz gero, hitzaren bidez egiten diren adierazpen guztiak dira literatura. Zentzu zehatzean, ostera, literaturak hitzaren bidez, ahoz zein idatziz, edertasuna sortzea eta sentimenduak, ideiak, zirrarak... transmititzea du helburu.

Alde horretatik begiraturaz gero, beraz, XVI. mendean hasten da euskal literatura idatzia, literatura landua. Aurretik ere badaukagu euskararen erabileraren zenbait lekukotasun, baina horiek ezin dira inondik inora literaturatzat jo.

Euskal literaturaren ezaugarri nagusiak bi hitzetan ematekotan, berandukoa eta pobrea izan dela aitortu beharra dago. Urritasun horren erruduna euskararen erabilera bazterrekoa izan da; bai antzinatean eta baita duela gutxira arte ere, mintzatzeko eta ahozko literaturan erabili arren, ez baitzegoen literatura idatzian erabiltzeko modurik eta, are gutxiago, agiri ofizialetan.

Kontuan izan behar da erromatarren menpeko lurraldeetako berezko hizkuntzak (Penintsulakoak, behinik behin) galdu egin zirela latinaren eraginez, euskara izan ezik.

Euskara, alabaina, “basatien hizkuntza” gisa geratu zen, zibilizaziotik at eta, beraz, kulturaren esparrutik at. Egoera horrek, zoritxarrez, urte askoz iraun zuen.

Ezin gauza bera esan, haatik, ahozko literaturari buruz, beste edozein herrirena bezain ugaria, aberatsa eta joria baita.

Euskararengatiko kezka XIX. mendean sortu zen Euskal Herrian eta orduan gertatu zen literaturaren loratzea; tradizio idatziaren faltak eraginda, oso berantiarra izan zen Europako inguruko herrietako literaturaren loratzearen aldean.

Oro har, XVI. mendetik XVII. mendearen bukaerara arte, Elizaren eta elizgizonen menpe egon zen euskal literatura. Denbora tarte horretan plazaratu ziren liburu gehienak Bibliaren itzulpenak, katiximak eta kristau ikasbideak izan ziren, gehienak ere balio literario eskasekoak.

Arestian esan bezala, XIX. mendearen bukaera aldera eta XX. mendearen hasieran gorako joera nabarmena hartu zuen euskarak. Idazleak ugaltu ziren, literatur txapelketek aparteko indarra hartu zuten eta, horiekin batera, plazaratutako liburu kopurua izugarri areagotu zen. Literaturgintzan sekula izan gabeko kezka estilistikoak sortu ziren; teknikei eta formei buruzko ardura nabaritzen hasi zen idazleengan. Literaturan bide berriak urratzen hasi zen, berandu hasi ere.

Asko falta zen, ordea, literatura euskal gizarte osoaren erakusgarri izateko. Euskal Herrian literatura, industrializazioak izandako eragin sozio-politikoaz aparte, baserriari edota bizimodu tradizionalari lotuegia zegoen oraindik. Gainera, idazle gehienek erabiltzen zuten euskara zaila eta ulergaitza zen euskaldun arruntentzat.

Haustura unea, literatura hiritartu eta laiko bihurtu zen unea, XX. mendeko 60ko hamarkada izan zen. Literaturan kezka eta gai berriak azaltzen hasi ziren eta gorakada ikaragarria izan zuten nobelagintzak eta poemagintzak.

2. INSKRIPZIO ZAHARRAK. EUSKARAREN ERDI AROKO LEKUKOTZAK. ERDI AROKO IDATZ-ZATIAK ETA HAIEN BALIOA LITERATUR LEKUKOTZAREN ALDETIK.

2.1 EUSKARAREN LEHENBIZIKO LEKUKOTASUN IDATZIAK

Esan bezala, euskal literaturaren egiazko hastapena XVI. mendean, 1545. urtean, Bernat Etxeparek argitara eman zuen *Linguae Vasconum Primitiae* izeneko liburuak mugatzen badu ere, ezin dugu esan ez dakigula ezer hura baino lehenagoko euskaraz, edo ezer ez dela garai haietatik gureganaino iritsi. Baditugu antzinako euskararen berri ematen diguten agiri batzuk.

AKITANIAKO LEHENBIZIKO LEKUKOTASUNAK

Harrigarria iruditzen bazaigu ere euskalduntzat jotzen diren lehen lekukotasunak ez dira gaur egun Euskal Herrizat hartzen den lurraldean bildu izan. Lehen euskal hitzen lekukotasunak Akitanian aurkitu dira.

Akitaniarrak eta euskara

Dakigunez, Akitania eskualdea Julio Cesar erromatar konkistatzaile ospetsuak aipatu zuen lehen aldiz. Iturri honen arabera, Akitania Pirinio mendiek, Garona ibaiak eta Atlantiar ozeanoak mugatzen dute. Julio Cesarren eginkizunik garrantzitsuenetariko bat Galia deitzen zen eskualdea konkistatzea eta baketzea izan zen Kristo jaió aurreko urteetan. Gudaldiaren kronikan menperaturiko Galiaren berezitasunak aipatzean Galian hiru herri bereiz zitezkeela zioen: iparraldean belgak, erdialdean galiarrak, eta Akitaniako akitaniarrak. Hiru herriak ezberdinak omen ziren hizkuntzaz, kulturaz zein ohiturez. Garai bereko Estrabon geografoak ere akitaniarren berezitasunak azpimarratu zituen. Estrabonek, gainera, akitaniarren eta euren hegoaldeko, hots, gaur egungo Hego Euskal Herriko, bizilagunen antzekotasunak ere aipatu zituen.

Ikertzaile askorentzat akitaniarrek eta euskaldunek herri bera osatzen zuten eta hizkuntza bera erabiltzen zuten edo, bestela, oso gertuko hizkuntzak ziren akitaniera eta euskara. Iritzi honen alde bi froga multzo argudiatzen dira: batetik, goian aipatu ditugun autore klasikoak idatzirikoak eta bestetik, Akitaniako eskualdean zehar barreiatuak aurkitu diren hainbat eta hainbat inskripzioetako hitzen lekukotasunak.

Erromatarrek eskualde hau konkistatu ondoren euren hizkuntza ezarri zuten; latina, hain zuzen. Hizkuntzaz gain kultura eta ohiturak ere ezarri zituzten, eta akitaniarren hizkuntza, antza denez, apurka-apurka galduz joan zen. Baina gure aroko lehen mendeetan bertako bizilagunek hildako senideen alde otoitz egiteko jainkoei eskainiriko inskripzioak idatzi zituzten hilobi harrietan. Inskripzio hauek latinez eta erromatarrek erabiltzen zuten alfabetoan idatzirik daude, baina bertan agertzen diren hainbat giza izen eta jainko izen ez dira erromatarrek.

Lekukotasunak

Joan den mendeko Luchaire ikertzailea izen hauetariko askok gaur egungo euskal hitzekin duten izugarrizko antzaz ohartu zen. Hona hemen inskripzio hauetan bilduriko batzuk: *Ilurberrixo* (jainko izena), *andere*, *gison*, *andosus*, *bihoxus*, *harbelex*, *nescato*, *leherenn*, *borsei*, *harsi*, *oxson*, *ilunnosi*, *sembeco*, eta abar. Kontuan hartzen badugu latinez idatzi zituztela, hots, latinaren deklinabide markak dituztela hitz amaieratan, eta erromatarren alfabetoa erabili zutela horretarako, hots, hainbat euskal fonema transkribatzeko zeinu berezirik ez zutela (ts, tx, tz, z,...), argi ikus daiteke goiko izenen eta euskaldunen arteko antza: *andere*, *gizon*, *handi*, *bihotz*, *harbeltz*, *neskato*, *leher/lehen*, *bortz/bost-sei*, *hartz*, *otso*, *ilun*, *seme...* Izenak ez ezik atzikiak ere identifikatu dira, *-txo* eta *-ko*, esate baterako.

Hona hemen lekukotasun horietako batzuk idatzirik agertu diren bezala:

- ***ILVRBERRIXO / ANDEREXO***
- ***ASTOILUN / NO.DEO / C.FABIVS / NIS.F EL / V.S.L.M.***
- ***SEMBETTEN / BIHOSCIN / NIS.F EL / V.S.L.M.***
- ***BAESERTE / DEO / HARBELEX / HARSII. F / V.S.L.M.***
- ***LEHEREN / VRIAXE / ILVNNOSI / FILIA***

Erromatarren garaiko lekukotasunek erromatarrek etorri zirenean euskara hemengo hizkuntza zela ziurtatzen digute. Eta akitaniera eta euskararen arteko ahaidetasuna baieztatzen dute; modu berean, Pirinioetako bi aldeetan hizkuntza bera hitz egiten zelako susmoa. Honez gain, lekukotasun hauek balio handia dute euskararen historia berreraikitzeke, bai fonetikaren aldetik, zein izenen konposizio, atziki, genero eta numero aldetik.

ERRIOXAKO LEKUKOTASUNAK: EMILIANOAR GLOSAK

Erdi Aroan euskararen lekukotasun ugari aurki ditzakegu toki eta pertsona izendegietan. Lekukotasunak are ugariagoak dira X. mendetik aurrera; horietako asko Errioxa eta Gaztela (Burgos) aldekoak dira, lurralde horietan euskaraz mintzatzen baitziren.

Euskaraz idatziriko lehen esaldiak ere garai hartakoak dira, X. mendekoak. Esaldiok Donemiliagako Kukulako (Errioxa) monastegian aurkitu ziren latinez idatziriko prediku liburu batean. Latinezko testuaren ertzetan agertzen dira, euskaraz idatzita daude eta latinezko testuaren itzulpena dira. *Emilianoar glosak* deitzen dira. Glosa hauek espainol hizkuntzaren lehen idazkitzat hartzen dira, eta horietako bi euskaraz daude. Hona hemen esaldiak: *izioqui dugu* da bata eta, bestea, *guedc ajutu ez dugu*.

Nahiz eta egungo euskaldun batek ulertu ez, zalantzarik ez da *dugu* aditz forma, ez hitza eta *guk* (*guedc*) izenordaina direla hor.

Ziurrenik testua irakurtzen ari zen fraidea euskalduna izango zen eta ez zuen esanahia ongi ulertuko. Horregatik testuaren alboan bi esaldi hauek idatzi zituen euskaraz, esanahia argitzeko asmotan. Hau da bi esaldi hauek idaztearen zergatiari bilatu zaion arrazoia.

Esaldiak glosak [] artean ageri dira ondoko testuetan:

“Gaudeamus fratres karissimi et Deo gratias agimus, quia uso, secundum desideria nostra, jncolumes [sanos et salbos] jnueniri meruimur [jzioqui dugu].

... Si uero, quod Deus non patiatur [non quieti] et mala opera exercimus [nos sificieremus] et plus pro carnis luxuria quam pro salute anime laboramos, timeo ne quando boni christiani cum angelis acceperint uitam eternam nos, quod absit, precipitemur [guedc ajutueddugu] [nos nonkaigamus] jngeenna.”

Izioqui bizkaieraz erabiltzen den *ixio* aditzarekin lotzen dute, sua piztea edo sua ematea adierarekin. Bigarren esaldian ezin izan da *ajutu*-ren esanahia argitu; batzuentzat *erori* esan nahi du, eta besterentzat, *egoki*, gaztelaniazko oharrak kontuan izanda.

Donemiliagako esaldiak garrantzitsuak dira garai horretako egitura gramatikalak azaltzen dituztelako. Glosa hauei aditzek ematen diete ziurtasuna, Akitaniako kasuan ez bezala, esaldi osoak baitira. Euskararen garapena ulertzeko oso

garrantzitsuak izan dira. Honez gain, Errioxan garai honetan euskaraz mintzo zela adierazten dute.

BIDAIARIEN LEKUKOTASUNAK ETA HIZTEGI TXIKIAK

Erdi Aroan erromesaldiak ohikoak ziren eta Santiagorako lehen mailakoa zen, Erromakoarekin edo Jerusalemgoarekin batera. Frantziako hainbat toki ziren Santiagorako bidearen abiapuntu; Nafarroa Behereko Izuran bat egin eta gero, Ibañetatik barrena, Nafarroa Garaian sartzen zen, Gaztela eta Leon igaro ondoren, Galiziara heltzeko. Beste adar batek kostaldetik zeharkatzen zuen Euskal Herria, Baionatik Bilbora, eta kostaldean aurrera eginez, Santiagoraino heltzen zen.

Santiagora bidean, beraz, bidaiari ugari heldu ziren euskal lurretara. Horietako batek, Aimery Picaud izeneko erromes frantsesak, Frantziatik Santiagora egindako bidaiari ikusitakoen berri jasotzen zuen gida idatzi zuen XII. mendean. Gida horretan Baskoniaren eta bertako biztanleen deskribapen ez oso atsegina egiteaz gain, euskarazko hiztegitxo bat ere sartu zuen, beste erromesentzat lagungarri izango zelakoan. Horixe da egundaino ezagutzen dugun euskarazko hiztegirik zaharrena.

Hona hemen Aimery Picauden gidan baskoiei buruz ageri den pasarteetako bat:

“Si illos comere videres, canibus edentibus vel pocis eos computares. Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares. Barbara enim lingua penitus habentur. Deum vocant “Urcia”, Dei genitricem “Andra Maria”, panem “ogui”, vinum “ardum”, carnem “aragui”, piscem “arraing”, domum “echea”, dominum domus “iaona”, dominam “andrea”, ecclesiam “elicera”, [...] triticum “gari”, aquam “uric”, regem “erreguia”, sanctum Jacobum “Jaona domne Jacue”...”

(“Jaten ikusiko bazenitu, txakurtzat edo urdetzat hartuko zenituzke. Hitz egiten entzunez gero, zaunka ari diren txakurrak etorriko zaizkizu burura, hain da barbaroa haien hizkuntza. Jainkoa Urtzia deitzen dute, Santa Maria Andrea Maria, ogiari ogui, ardoari ardum, haragiari aragui, arrainari arraing, etxeari echea, etxeko jaunari iaona, andreaki Andrea, elizari elicera, prebisteroari belaterra, [...] gariari gari, urari Eric, erregeari erreguia, Santiago Jaunari Jaona domne Jacue...”)

Aimery Picaudek bildutako hitz hauek oso garrantzitsuak dira euskaraz idatzitako lehenengo hiztegitxoan osatzen dutelako. Honez gain, eta ondorengo erromesei lagungarri izan ziezaien idatzi zuenez, euskara garai horretan Nafarroako biztanleekin elkar ulertzeko ezinbestekoa zela ulertzen dugu.

XV. mendean Arnold Von Harff erromes alemanak hiztegi txiki bat idatzi zuen Donejakuera bidean ikasitako hitzekin. Hona hemen azken honek jasotako hitzak:

- <i>Item ogea</i>	<i>Broyt</i>	(ogia)
- <i>arduwa</i>	<i>wijn</i>	(ardoa)
- <i>oyra</i>	<i>wasser</i>	(ura)
- <i>aragi</i>	<i>fleysch</i>	(haragia)
- <i>gasta</i>	<i>keys</i>	(gazta)
- <i>gaza</i>	<i>saltz</i>	(gatza)
- <i>oluwa</i>	<i>hauer</i>	(olioa)
- <i>huetza</i>	<i>stroe (?)</i>	(ahotza)
- <i>norda</i>	<i>wer is dae</i>	(nor da)
- <i>schambat</i>	<i>wat gilt dat</i>	(zenbat)
- <i>hytzokosanma</i>	<i>eyn wirt</i>	(etxeke jauna)
- <i>gangon dissila</i>	<i>got gheue dir</i>	
	<i>guden morgen</i>	(gau on dizula)
- <i>schatuwa ne tu so</i>	<i>schoin junfrau kumpt</i>	([ne]skatoa nahi duzu)
<i>gausa moissa</i>	<i>bij mich laeffen</i>	gauza motza)
- <i>bat</i>	<i>eyn</i>	(bat)
- <i>bij</i>	<i>tzwey</i>	(bi)
- <i>yron</i>	<i>drij</i>	(hiru)
- <i>lae</i>	<i>vier</i>	(lau)
- <i>boss</i>	<i>vunff</i>	(bost)
- <i>see</i>	<i>sees</i>	(sei)
- <i>sespe</i>	<i>seuen</i>	(zazpi)
- <i>tzortzey</i>	<i>acht</i>	(zortzi)
- <i>wedeatzey</i>	<i>nuyn</i>	(bederatzi)
- <i>hammer</i>	<i>tzien</i>	(hamar)

GONZALO DE BERCEO

XII-XIV. mendeetan, Gonzalo de Berceoren lanetan aurkitzen dugu euskara. Zenbait hitz aurkitzen ditugu bere testuetan; hala nola *zatico*. Honek garai honetan euskara nahiko zabaldua zegoela esan nahi du. Bi mende hauetatik aurrera gero eta testu gehiago azaltzen dira.

Euskara Gonzalo de Berceoren lanetan agertzea euskararen garrantzia eta zabaleraren adibide da.

NAFARROAKO FORUA (XIII. MENDEA)

Foruaren hizkuntza nafar-erromanikoa zen. Gizarteko talde jasoek (Gorteak, Elizak...), latina uztean, zeregin berrietarako erromanikoa hobetsi zuten Nafarroan; baina, arauak gizarte euskaldun bati eman behar zizkiotenez, euskal hitzak behin eta berriz azaltzen dira Nafarroako Foruan. Adibidez: “*ay una pecha que es clamada en bascuenz açaguerrico*”; “*Tierras ha que no han vino o vino no han: deben dar por la opil arinçada XVI dineros*”; “*...De casa deven yr a la veylla o el echayaun o ela echandra*”.

NAFARROAKO MONASTEGIAK

Nafarroako monastegietan Erdi Aroko euskararen oihartzunak berehala ageri dira paperetan. Haietako agiritegiak ditugu, adibidez, garaiko euskaldunen izenak ezagutzeko biderik preziatuenetakoak. Irantzu edo Leireko agiritegietan, nafar Foruan bezalatsu, euskal izenak esku beteka bildu dira. Monasterioaren lur-sailen eta zerbitzarien izenak izan ohi dira nabarietak: *Eneco Arçaia* (Ororbia), *Miguel Arguina* (Arataxona, 1173), eta abar. Baina, euskararen oihartzun sozial guzti hauekin ere, Monastegietako agirien hizkuntza ofiziala ez zen euskara izan, latina baizik.

GORTEKO GUTUNA (1415)

Erret Gortean bazuen euskarak lekurik, eta bertako ofizialak euskaldunak ziren sarritan. Orain urte batzuk aurkitu zen funtzionarien arteko gutun bat euskaraz. Martin San Martin-ekoak Matxin Zalba-koari idatzia zen. Hona gutun honen adibide bat: “*Et jaunatiçula abarion ez naiç bildur ezten alla.*”

JOAN ZUMARRAGAKO (1537)

Mexikotik Durangora idatzitako eskutitz honetan Zumarragak Tabirako Muntzaraz dorrea gogoratzen du: *Obatuco ta ondraduco dogu munçarasco eseori*.

BALADAK

XIV. mendean euskal lurraldeen arteko mugak defendatzeko gerra giroak sortuko du nolabaiteko tradizio literario bat, ahozko formekin lotua. Hau Baladen tradizioa izango da.

Erromantze izenez ere ezagutuak, gertaeren kontaketa oinarritzen dira eta literatura generoetan epika deritzon sailean sartzen dira. Baina ez dira gertaera historikoak soilik kontatzen; badira asmaketak eta sentimenduen adierazpenak eta elkarrizketaz emandako sailak ere.

Herri-literaturaren fruitu hauek oroimena izan dute euskarri, nahiz eta metrikaz eta errimaz kantatu izanak asko lagundu duen memorian gordetzeko. Balada beraren bertsio bat baino gehiago jaso izan dira; baina aldaera horiek normaltzat hartu behar dira ahozko tradizioan herrialde guztietan, bai oroimenean hutsuneak gertatu izan direlako, eta baita eskualde bakoitzak bere dialektoaren ezaugarriak ezarri dizkiolako ere.

Berezitasunak

Edukiari edo historiari begiraturaz, honako sailkapen hau egin daiteke:

- Eredu epikoa: XV. eta XVI. mendeetakoak. Gaiari dagokionez, Erdi Aro bukaera aldeko gudu-gertakariak, buruzagi eta jauntxoek ekintza eta bizi-giroa, bandokide edo ahaide zaharren kantuak, heresiak eta erlijiozko kanta dira. Alderdi poetikoak ere badu lekurik, baina gertaera eta guduek daramate kontatzeraren haria. Garaiko kronikatzat har daitezke. Adibide batzuk: *Beotibarko gudua*, *Arrasateko erreketako kanta*, *Bereterretxen kantoria*, *Atherratzeko anderea*, *Alos torrea*, *Milia Lasturko* eta abar.

- *Atherratzeko anderea*: Zuberoako kanta ezagun honen aldaera ezberdinak bildu dira. Jaurgainen ustez, kantaren protagonista, Lukuzeko Charles jauna da eta istorioa XVI. mendeko katoliko eta protestanteen arteko borroketan kokatzen da. 50 urteko alarguna zen Charles, 17 urteko Ozaze Jaurgainiako Mariarekin ezkondu zen 1584an, honen borondatearen kontra, kanta aditzera ematen duen bezala. Katolikoa zen

Charlesek Mauleko gazteluaren agintea zuen, protestanteek jazarri zutenean; 1587an alde egin behar izan zuten. Senar-emazteak zenbait laguntzailerekin, Otsagin herbesteraturik egon ziren 1593 arte, Zuberoara itzuli aitzin.

· *Milia Lasturkoaren* heresia: Ez dakigu heresiaren data zuzenik, baina XV. mendeko emakume bertso-kantarien adibide ona da hau: *Cer ete da andra erdiaen zauria / Sagar errea, eta ardao gorria / Alabaya, kontrario da Milia / Azpian lur oça, gañean arria*. J. K. Gerrak aztertu zituen, XIV.-XV. mendeetatik zetozen XVI.ean idatzitako kanta hauek.

- Eredu epiko-lirikoa: XVII. mendekoak dira ezagutzen diren gehienak. Hauek ere kontaera dute oinarri, baina dramadunak dira; hau da, elkarrizketaz emanak. Pertsonak, lekuak eta garaiak ez dira zehatz eta jakinak, orokorrak baizik. Ezin dira, beraz, kronikatzat hartu. Isuri lirikoak denboraren eta leku-zehaztasunen gainetik jartzen ditu; nonahiko eta noiznahiko literatura-emaizak dira. Adibideak: *Arrosa zurriaren azpian, Brodatzen ari nintzen, Goizean goizik, Peru gurea* eta abar.
- Eredu lirikoa: XVIII. mendekoak. Multzo hau da herri-poesian ugariena eta, askoren ustez, onena. Konta-poesia hau lirika huts bihurtu da kasu gehienetan. Gaiak sinboloan emanak datoz, eta elkarrizketa bidez agertzen dira. Amodioa dute ia gai bakarra, eta gehienak Ipar Euskal Herrian bildu dira. Adibidez: *Intxauspeko alaba, Txori erresiñula, Eijerra zira maitia, Maitia nun zira?, Jaun baruak aspaldin* eta abar.

Esan bezala, metrikaz, errimaz eta doinuaz aparte, badira baladetan geroago koplak zaharretan ere atzematen ditugun baliabide aipagarri batzuk: naturaren aipamenak, bihurkia (errepikapena), anafora eta maite nahiz gorroto dena izendatzeko zenbait sinbolo: usoa, urzapala, ainara, errexinula, lilia, eguzkia, zitroina, izotza eta abar.

Baladak, hortaz, oso garrantzitsuak dira ere, bertan hiztegia, lexikoa, egitura gramatikalak, orduko bizimodua, pentsamoldea, jokaera eta abar azaltzen baitira.

3. XVI.MENDEA: LITERATURA IDATZIAREN SORRERA. D´ECHEPARE, LEIZARRAGA; ERREFRAU BILDUMAK: OIHENART, GARIBAY ETA ABAR.

3.1 Testuinguru historikoa

XVI. mendea Berpizkunde garaia dugu. Gizarte hierarkizatua hautsiko denez, bizimodu berri bat, bizitza ulertzeko modu berri bat, zabalduko da. Honela, gizakiaren birbalorizazioa (antropozentrismoa) eta arrazoia (zentzu kritikoa eta esperimentazioa) aurkituko ditugu mende honetan. Arrazoia izanen da gizaki egiten gaituena.

Erreferentziazat beti natura hartuko dute eta gizartea aberasteko antzinateko ohituretara joko dute; Grezia eta Erromako jakinduria zabaldu beharra dagoela pentsatuko dute. Izan ere, mende honetan Erdi Aroko balore guztien ukapena ematen da, antzinate klasikora eta hango baloreetara bueltatuz.

Teknologia berriez ere baliatuko dira, mende honetan inprenta sortuko baita. Inprentak liburuen demokratizazioa (jada ez dira gutxi batzuren eskuetan geldituko) eta, honen bidez, alfabetizazioa bultzatuko ditu. Baina, ondorioz, ahozkotasanaren galera gertatuko da.

XVI. mendeko testuinguruaz jabetzeko, honako alor hauek nabarmendu behar dira. Kulturari dagokionez, mende honetan Europan gertaturiko mugimendurik garrantzitsuena Ernazimendua izan zen. Mugimendu honek sekulako susperraldia eragin zuen, hala zientzian (non Leonardo da Vinci, Galileo Galilei eta abar aurkitzen ditugun), nola artearen eta kulturaren arlo askotan (non Miguel Angel, Boticelli eta abar aurkitzen ditugun). Letren munduari dagokionez, latinaren eta beste hizkuntza askoren ondoan, tokian tokiko hizkuntzak indartzen hasi ziren; herria bere hizkuntzan eskolatu beharra garai honetan sortutako ardura dugu.

Euskal gizartean, ordea, herri xeheak zientzia eta letren munduko atea itxita zituen, aitonon seme-alaba edota eliz gizona izan ezean, behintzat.

Hala ere, ezin da ahaztu mundu osoan eragin nabarmena izan zuen gertaera hau: Gutenbergek inprenta asmatu zuen. Harrezkero, liburuen ugalketa erraztu egin zen, ez baitziren ordura arte bezala banan-banan eta eskuz idatzi behar.

Filosofiari dagokionez, Humanismoa bultzatuko dute: Jainkoa existitzen dela ez dute ukatuko, baina arrazoiatik abiatuz gurtuko dute. Honek guztiak kritika bultzatu eta *Bibliarekiko* kezka bideratuko ditu.

Erljioari dagokionez, Martin Lutherek katolizismoaren dogma eta Aita Santuaren primatua kritikatu, Protestantismoaren lehen urratsak eman zituen.

Euskal Herrian ez zuen protestantismoak jarraitzaile askorik izan. Baina Nafarroako erreginak, Joana Albretekoak, protestantismoaren tesiak onartu zituen eta horren ondorioetako bat Biblia euskaratzearena izan zen (protestantismoak tokian tokiko hizkuntzaren beharrezana ikusi baitzuen).

Aipagarriak dira, bestalde, aro honetan gertatu izan zirela erlijio borrokak.

Gertaera politikoaren artean bada bat oso garrantzitsua 1512. urtean: Gaztelako erregeak Nafarroako Erresuma konkistatu zuen eta Albretarren dinastiak Nafarroa Beherera alde egin behar izan zuen. Monarkiak indarrean zeuden garai hartan hasi zen, bada, gaur ezagutzen dugun estatu-eredua definitzen.

Euskal Herriko literaturari dagokionez, mende honetan sortuko da euskaraz idatzitako lehenengo liburua. 1545. urtean inprimatuko da Bordelen eta Bernar Etxepare behe-nafarrak idatziko du. Bere izenburua: *Linguae Vasconum Primitiae*.

Euskal literatura berantiarra izateaz gain, ez zen oso emankorra izan mende honetan. Etxeparez gain, 2004. urtean aurkitutako Lazarragaren lana dugu. Hau artzain-eleberri bat da, zeinak koplak batzuk ere badituen. Ondoren Joanes Leizarraga dugu, apaiz protestantea. Honek hiru lan erlijioso itzuli zituen Joana Albretekoa erreginarekin aginduz. Eta bukatzeko atsotitz edo errefraue bildumak ditugu.

Etxeparearen lana Ernazimenduko joerei baino, lotuago dirudi aurreko aroko joerei. Antzinako erlijioaren oihartzuna sumatzen dugu bere lanean, eta baita ahozko literaturarena ere. Lazarragari dagokionez, honek bai jarraitzen dituela Ernazimenduko joerak. Eta Leizarraga protestantismoari lotuta dago. Baina hau guztia orain sakonduko dut bakoitzak egindako lanean.

BERNARD ETXEPARE:

Hauxe da euskaraz lehenengo liburua idatzi zuen idazlea, kronologikoki Euskal Literaturak ezagutzen duen lehenengo idazlea baita. 1475aren inguruan jaio omen zen Sarrasketan (Donibane Garazi ondoan). Eiheralarreko erretore bilkaturik, badirudi Biarnon izan zela espetxeratua gehiegi argitu ez diren arrazoiengatik. Dena den, baliteke Nafarroako gerran Gaztelako erregearen alde azaltzeagatik izan zela, beamondarren alde eta agramondarren kontra egoteagatik. Ondoren Eiheralarrera joan zen eta bertako erretore izan zen.

1545. urtean bere liburua argitaratu zen Bordelen: *Linguae Vasconum Primitiae*. Gutxienez bi edizio izan zituen lan honek baina ale bakarra gorde da. Badirudi Bordeleko argitaratzailea laguna zuela, eta honek bultzatuko zuen lehen saio hau egitera. Lanaren helburua erlijioa lantzea, solastea, gozatzea eta kantatzea izan zen.

Liburuaren egiturari dagokionez, honako atalez osatua dago:

- hitzaurre bat (31 lerro),
- erlijioari buruzko bi bertso (595 bertso lerro),
- maitasunari buruzko hamaika bertso (403 bertso lerro),
- bertso autobiografiko bat (102 bertso lerro)
- eta euskararen gorazarrea egiten duten bi bertso (59 bertso lerro).

Erliziozko bi bertsoak “Doctrina Christitana” eta “Hamar mananmenduyac” ditugu; maitasunezkoak, aldiz, “Amorosen gaztiguya”, “Emazten favore”, “Ezconduyen coplac”, “Amoros secretuqui dena”, “Amorosen partizia”, “Amoros gelosia”, “Potaren galdacia”, “Amorez errequericia”, “Amorosen disputa”, “Ordu gayçarequi honat zaquiçat” eta “Amore gogorraren despita”; bertso autobiografikoa “Mossen Bernat Echeperere Cantuya” dugu; eta, bukatzeko, euskarari gorazarre egiten dioten bi bertsoak “Contrapas” eta “Sautrela” dira.

Liburuak osotara 28 orrialde ditu, behe-nafarreraz idatzia dago eta ez dio jarraitzen Ernazimenduko kanonari; ahozko literaturatik gertuago dago. Neurkerari dagokionez, maiz erabiltzen du 4 / 4 // 4 / 3 neurria. Hizkerari dagokionez, Garaziko hizkeraz idatzi zuen.

Hona liburuaren atalak banan bana:

- Hitzaurrea: Atal honetan Bernard Leheteri, erregearen abokatua zenari, eskaintzen dio liburua. Horretaz gain, bere obra definitzen du: koplak gisa eginak dela (bere burua koplak idatziak du) eta ahozkotatasunetik

oso gertu dagoela defendatzen du. Ideiak mundu guztira zabaltzeko modu bakarra idaztea dela dio, inprentaren aldarrikapena eginez. Euskaraz idazten duen lehen idazlearen kontzientzia badu, eta, berak oinarria jarri duenez, guk hori hedatu eta Jainkoari otoitz egitera behartuak gaudela adierazten du. Hona hemen hitzaurrearen transkripzioa:

“ Erregeren adbokatu bidezko eta nobleari, birthute eta hon guziez konplituari bere jaun eta jabe Bernard Leheteri, Bernard Etxeparekoak, haren zerbitzari xipiak, gogo honez gorainzi, bake eta osagarri. Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara bertze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abaiaturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione oroko uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute eskribatzen berian. Eta zeren orai zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara, zuri, neure jaun eta jabia bezala, igortzen darauritzut heuskarazko kopla batzu ene ignorantziaren araura eginak. Zeren, jauna, haiek ikhusirik eta korregiturik plazer duzun bezala, irauri bazautzu, inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra. Inprimaturik heuskara, oraino izan eztena, eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abanzatzeko eta obligatu giren guziak Jeinkoari othoiz egitera, dizun mundu honetan prosperoki bizia eta berzian parabizua. Amen.”

- Erljioari buruzko bertsoak:

· “Doctrina Christiana”: Otoitz moduko bertsoak dira eta luzera ez da beti berdina. Ematen du idazteko dela eta ez kontatzeko. Lau bertso-lerroko ahapaldiak dira eta hoskidetasuna mantentzen du beti.

*Munduian den gizon orok behar luke pensatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,
bere irudi propiara gure arima kreatu,
memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.*

*Ezein jaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduki
ez pagatu soldatarik zerbizatu gaberik;
Jangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongia egin gaberik.*

*Muthilek gure zerbitzutan deramate urthia,
soldata aphur bategatik harzen pena handia;
Jangoikoak behar luke guk bezanbat balia;
Zerbitzatu behar dugu emaitkoz gloria.*

*Ogirik eztakusat bilzen hazi erein gaberik;
nork zer hazi erein [baitu] biltzen dizi komunki.
Obra honak ukhenen du goalardona frangoki,
baietare bekhatuiak punizione segurki.*

*Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,
guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu,
gure hatse eta fina hura dela pensatu,
goiz et'arrats orhituki haren izena laudatu.*

Hona hemen otoitz nagusia:

*Abe maria anderia grazia oroz bethia
Ieinkoaren ama birjen berak ordenatuia
Zeru eta lur ororen erregina dignia
Bekhatoren aduokata eta konfortaria.*

*Ni zugana niatorkezu bekatore handia
Karioki othoizera zu zakiztan balia
Digne ezpaniz aipazera zure izen sainduia
Ez jitera aizinera zeren bainiz satsuia.*

*Miserikordiaz bethe ziren andere handia
Enazazula othoi iraiiz eta ez menosprezia
zuk gibela badidazu elas ama eztia
Ordu hartan diakusazut galdu neure buruia.*

*Hanbat nuzu gauza orotan ni berthute gabia
Oren oroz bekatutan nabilena galduia
Eta bethi erratiua nola ardi itsuia
Mundu hunek haragiak bethi enganatuia.*

- Maitasunari buruzko bertsoak:

- “Potaren galdacia”: Neurri eta hoskidetasunaren aldetik aurrekoaren antzekoa da.
Elkarrizketa luze bat da, eta bertso-lerro bakoitzean ideia bat agertzen da.

*Andria ieinkoak drugazula orai berdi girade
Ni errege balin baninz erregina zinate
Pot bat othoi egidazu ezaizula herabe
Nik zugatik dudan penek hura meretsi dute.*

*Eia borrat apartadi nor uste duk nizala
Horlako bat eztuk uste nik ikusi dudala
Horrelako hiz gaixtorik niri eztarradala
Bertzer erran al baitiza enuk uste duiana*

*Andre gaixtoa bazinade nik eznaidi kondurik
Ziren zirena baitzira zuzaz pena dizit nik
Ene ustian eztut erran desonesta den gauzarik
Pot bat niri eginagatik ezinduke laidorik,*

*Hire potak baziakiat bertze gauza nahi dik
Anderia azti zira nihaurk erran gaberik
Bada uzi albainenzak ni holakoiz ixilik
Horrein gaiz ziraden gero eginen dut bertzerik.*

*Bizi nizan egunetan bada ezitut uziren
Nik zer orai nahi baitut heben duzu eginen
Uste diat eskuiarki ezizala burlazen
Gizon hunek orai nuia heben laidoz beteren
Eiagora nik zer daidit zaude ixilik hanbaten*

*Etai lelo ribai lelo pota franko bertzia bego
Andria minza albaitzinde bertze aldiari emiago.*

- “Amorez errequericia”: Ahapalde molde berria erabiltzen du: bi bertso-lerrokoa. Hoskidetasuna oso markatua du; maitasun eskaera bat da eta elkarrizketa moduan dago planteatua. Formula eginak eta hitz klabeak erabiltzen ditu. Hona hemen testuaren zati bat:

*Benedika fortuna ala enkontru hona
Orai begietan dizit desirazen nuiena.*

*Ene maite maitena egidazu zuzena
Ioan duzuna ekhardazu ezpa eman ordaina*

*Nik dakidan gauzarik eztadukat zurerik
Lotsaturik iarri nuzu ezpaitakit zegatik.*

*Eztuzula beldurrik eztukezu perilik
Gure auzian ezta izanen zuhaur bezi iuierik.*

*Eztut egin gaizkirik ukheitoko perilik
Ez etare zerengatik behar dudan auzirik.*

- “Amorosen disputa” eta “Amore gogorren despita”: Bertan neska mutilen arteko elkarrizketak eta egoerak agertzen dira.

AMOROSEN DISPUTA

*Uztazu hurtanzera amore maite
Orai partizeko damu ginate.*

*Amoriak othoi parti gitezen
Jendiak diradela hasi bekhazzen*

*Laidok hartu gabe geldi gitezen
Jendek irrigarri gerta ezkiten.*

*Elas amoria ene galduia
Iamas zurekila enainde enoia
Bizirik partizia pena handia
Honein sarri uzi nahi nuzuia.*

*Nihaurk ere gerthuz maite bazitut
Onerizte gabez uzten ezitut
Bana ieinkoaren nuzu beldurtu
Sobera digizi egin bekhatu*

AMORE GOGORRAREN DESPITA

*Andre eder jentil batez hautatu zait begia
Herri orotan gauza oroz eztu bere paria
Othoize bat banegion larradala egia
Biderikan lizatenez ninzan haren grazian*

*Respostuia eman deraut luzamendu gaberik
Kortesia hon derizut nik zuri hain segurki
Bertzerik nitan ezfukezu abisazen zitut nik
Gazte zoroa nizan arren enukezu hargatik.*

*Zu gaztia bazirere adimendu hon duzu
Nik zugatik dudan pena othoi sendi ezazu
zuretako har nazazu bizi nahi banuzu
Ni zugatik hil banadi kargu handi dukezu.*

*Ohoria galzen dela plazergitia gaiz duzu
Niri horla erraitia zuri eman eztuzu
Gaixteria egitia laido dela dakizu
Ni erhoa zu iakintsu beha enakidizu.*

- Bertso autobiografikoa:

· “Mossen Bernat Echeperere Cantuya”: Bere buruarekin duen elkarriketa azaltzen du; horregatik lehenengo eta bigarren pertsonak tartekatzen ditu. Luzea da eta bere bizitza eta pentsamenduak kontatzen ditu.

*Mosen bernat iakin bahu gauza nola jinen zen
Bearnora gabetarik egon ahal inzanden.*

*Heldu behar duien gauzan ezta eskapazerik
Nik ogenik eznuela hongigitez bertzerik
Bidegabek haritu nu bide eznuien lekhotik
Erregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik.*

*Iaun erregek mezu nenzan ioanengion bertarik
Gaizez lagola enzun nuien bana nik ez ogenik
Izterbegier eneien malizian lekhurik
Ioan nendin enagien ogen gabe ihesik.*

- Euskarari gorazarre egiten dioten bertsoak:

· “Contrapas” eta “Sautrela”: Abesteko eginak direla nabari da eta beren helburua euskara goraiatzea da. Bietan aurki ditzakegu abestietan ohikoak diren ezaugarriak: errepikapenak, silaba kopurua, hoskidetasunak eta abar. Gaur egunera arte mantendu diren ljkantak dira, beraz garrantzia handikoak.

KONTRAPAS

*Heuskara
ialgi adi kanpora*

*Garaziko herria
Benedika dadila
Heuskarari eman dio
Behar duien thornuia.*

Heuskara..

*Bertze jendek uste zuten
Ezin eskriba zaiteten
Orai dute phorogatu
Enganatu zirela.*

Heuskara....

*Lengoajetan ohi inzan
Estimatze gutitan
Orai aldiz hik behar duk
Ohoria orotan.*

Heuskara...

*Bertzeak orok izan dira
Bere goihen gradora
Orai hura iganen da
Bertze ororen gainera.*

Heuskara...

*Baskoak orok preziatzen
Heuskara ez iakin harren
Orok ikasiren dute
Orai zer den heuskara.*

Heuskara...

*Oraidano egon bahiz
Inprimitu bagerik
Hi engoitik ebiliren
Mundu guzietarik.*

Heuskara

*Ezein ere lengoajerik
Ez frantsesa ez bertzerik
Orai ezta erideiten
Heuskararen parerik.*

Heuskara....

SAUTRELA

Heuskara da kanpora, eta goazen oro danzara

*O heuskara lauda ezak garaziko herria
Zeren hantik ukhen baituk behar duian thornuia
Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena
Orai aldiz izaneniz orotako lehena.*

*Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen
Zeren ezein eskripturan erideiten ezpaitzen
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.*

*Heuskaldun den gizon orok alxa beza buruia
Ezi huien lengoajia izanen da floria
Prinze eta iaun handiek orok haren galdia
Skribatus halbalute ikhasteko desira.*

*Desir hura konplitu du garaziko naturak
Eta haren adiskide orai bordelen denak
Lehen inprimizalia heuskararen hura da
Basko oro obligatu iagoitiko hargana.*

*Etai lelori bailelo leloa zarai leloa
Heuskara da kanpora eta goazen oro danzara.*

*DEBILE PRINCIPIUM MELIOR
FORTUNA SEQUATUR*

Etxeparek garai bat itxi zuen ireki orduko, euskal literaturak berriro ezagutuko ez zuen garaia. Haren obraren bizitasunaren parekorik ez zen berriro azalduko, erlijioak kutsaturik agertuko baitzen geroko literatura guztia.

JOAN PEREZ DE LAZARRAGA

Larrean 1548. urtearen inguruan jaio zen eta 1605. urteko apirilaren 11an hil zen euskal idazlea izan zen. Larreako dorrearen jauna izan zen, oñatiar jatorriko familia bateko kidea.

Ezezaguna genuen 2004. urtean Madrileko antigoaleko denda batean bere lana aurkitu zen arte. Borja Aginagalde dokumentalistak aurkitu zuen. Honela, gorde den Hego Euskal Herriko testurik zaharrena dela ikusi zen.

Dianea eta koplak izena du bere lanak eta artzain nobela bat da. 1567. urtean idatzi zuen. 102 orrialde ditu eta 45 koplek osatzen dute lan hau (horietako 9 gazteleraz

daude idatziak). Lan honek Jorge de Montemayor idazlearen *Los siete libros de Diana* lanari jarraitzen dio. Lan hau 1559. urtean argitaratu zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Lazarragak honi jarraitu ziola pertsonaien izenetan ikus dezakegu; izan ere, izen berdinak erabiltzen ditu, aldaera txiki batzuekin.

Bere aurkikuntza oso garrantzitsua izan zen ere Arabako euskalkia darabilelako. Gaur egun lan hau Gipuzkoako Foru Aldundian aurkitzen da.

Lazarragaren bertsoak lau bertso lerrotakoak dira (ahapaldi bakoitza) eta hoskidetasuna mantentzen du. Gaia, esan bezala, maitasunarena da.

...Bere kantaetea Sirenak akabadurik, urten eben ain laster Silbero egoan lekurean, eze ez zan bastadu inor bere biurketa. Silberok ainbat sentidu eben bada Sirenak esan eben berbaak, eze erorri zidin jarririk egoan silla baterean; ain agiz, eze, Silbia isasi ez ballako, ez zatean mirakuru an ila. Baegoan, bada, Silbero ain akordu gutxigaz, eze Silbiak uste eben eze eskuartean ilgo lizakala, areanda beregan biurtu zeitean artean. Eta destenpleak itxi egion orduan asi zan Silbia Silbero konsolaetan, bada bere ekusirik Silberok, ain kruelmente bere Sirenak trataetan lebela, ez eben gura inork berbarik legion, salbo bakotxik egon baxe. Eta, ala, Silbiak urten eben arean, nun Silbero geratu zidin bakotxik eta ain konsuelo gutxigaz nola inork pensadu ezin leian, zenak arturik biguela bat asi zan kantaetan manera onetan:

*Esperanzeau galdu jat,
gutziz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren
egin gura dot negar bat.*

*Ai, ene desdixadua,
gaitxez rodeatua!
Kontentu uste neben orduan,
oi, zatort deskontentua!*

*Ene bioz penadua,
egun gaxki kuradua,
egun askotan bearko dozu
zeure aldean medikua.*

JOANNES LEIZARRAGA

Euskal idazle lapurtarra. Beskoitzen 1506. urte inguruan jaiotakoa eta Bastidan 1601. urtean hil zena. Apaiz katolikoa zen, baina Joana II. Albretekoa erregina protestante bihurtu zelarik, berarekin eraman zituen hainbat eta hainbat kristau. Eta Leizarraga higanot bihurtu zen (1559. urtean). Pabeko Kontzilioan erreginak Itun

Berriaren itzulpena egitea eskatu zion Leizarragari, dotrina zabaldu ahal izateko (1564. urtean). Eta Biarnoko sinodoak lau laguntzaile izendatu zizkion lan honetarako.

Leizarragak itzultitako lanak honako hauek izan ziren:

- *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*
- *Kalendrerera*
- *ABC edo Christinoen Instructioneoa*

Hiru lanak 1571. urtean argitaratu ziren Arroxelan. Oso landuak daude eta hauek egiteko laguntzaileak behar izan zituen. Lanen helburua erreforma sustatzea eta hedatzea izan zen. Hizkuntzari dagokionez, hizkera bateratu bat, euskaldun guztiok ulertzeko modukoa, egiten saiatu zen. Honetarako oinarri lapurtera hartu zuen, gero beste euskalki batzuk tartekatuz. Hala ere, arazo larriak izan zituen ortografia eta hizkeran, eredu falta zela eta. Halako mailegutza orokor bat egin zuen latinetik, terminologia kultua eta erlijiozkoa inguruko hizkuntzetatik hartuz. Euskara prosan erabili zuen aurreneko idazlea izan zen.

- *Testamentu Berria*: Liburua *Vulgatatik* itzulia bada ere, baditu itzulpena ez diren beste atal batzuk: Nafarroako erreginari zuzenduriko gomendiozko karta (non erreginarenean izaera laudatzen duen eta helburua zein den adierazten), euskara eta euskalkiekin izan dituen arazoak azaltzen dituen “Heuscalduney” deritzan atala (non euskalduneri irakurtzen ikas dezatela eskatzen zaien) eta hiztegitxo bat amaieran. Erabiltzen duen hizkera lapurtera da, baina zuberera eta behe-nafarreraren isladekin. Hala ere, mailegu asko erabiltzen ditu. “Heuscalduney” atalean ikusten da zein den Leizarragaren kezka hizkuntzari dagokionez. Konziente da nola euskara ia etxe batetik bestera aldatzen den; hori azpimarratzen du eta kontatzen du nola berak ez duen hizkera zehatz bat hautatu, baizik eta hizkera batzuen arteko nahasketa. Hau, berak dioenez, euskaldun guztiontzat ulergarri egiteko egin du. Bukatzen du Jainkoaren hitza ongi zabaltzea eta ulertzea bere asmoa dela esanez.

- *ABC*: Itzulpen erlijioso bat da. Hau, liburu praktikoagoa da. Protestantismoa praktikatzeko duen jendeari bideratua dago. Hiru aholku ematen ditu: praktikatu gehiago, ongi irakurri hasieratik ikasi beharra eta hitzak argi ahoskatu.

Liburu hau Jaungoikoa zerbitzatu nahi dutenentzat dago bideratua, zer egin behar duten jakin dezaten. Hori da Leizarragaren asmoa; horregatik euskaratu du liburu hau; euskaldunek probetxu ateratzeko eta Jainkoari zerbitzatzekoan nondik jo jakin dezaten.

IESUS KRIST GURE IAUNAREN ORATIONEA

Gure Aita zeruetan aizena.

Sanktifica bedi hire Izena.

Ethor bedi hire Resuma.

Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean-ere.

Gure eguneko ogia iguk egun.

Eta barka ietzaguk gure bekatuak, nola guk-ere ofensatu gaituztener barkatzen baitrauegu.

Eta ezgaitzala sar erazi tentationetan: baina deliura gaitzak gaitzetik.

Ezen hirea duk resuma, puisanza eta gloria sekula sekulakotz, Amen.

- *Kalendrera*: Itzulpen erlijioso bat da. Jaiak, ilargia, ... eta abar aipatzen ditu. Egutegi bat da. Helburua herritarren bizimodua parametro erlijiosoen barnean finko mantentzea da. Testu honen asmoa da jendeak jakitea egun bakoitzean zer egin behar duen; hau da, zeintzuk diren jai egunak edo santuen egunak, erlijioari dagokionez.

Urtheaz eta haren partez

Urtheko hillebetheak dira hamabi.

Asteak, berrogei eta hamabi eta egunbat.

Egunak, hirur ehun, hirurogei eta borz, eta sei oren.

Eguna Iuduek luze baliz labur baliz hamabi orenetara partitzen zuten, eta goizean zuten hatsen.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12. Eta guk, 6 7 8 9 10 11 12, 1 2 3 4 5 6

URTHARRILLA

Eguna da 9. oren, eta gaua 15.

1 i A Calend. Iesus Kristen Zirkonzisioea 8 ii b 4 iii c 3 16 iii d Prid. No. 5 v e Nonæ. vi f 8

Iaunaren Epiphania 13 vii g 7 edo Aparitionea. 2 viii A 6 ix b 5 10 x c 4 xi d 3 18 xii e Prid. Id.

7 xiii f Idus. Iguzkia Aquariusean. xiiii g 19 15 xv A 18 4 xvi b 17 xvii c 16 S. Antoni 12 xviii d

15 Ptolomeoren araura, 1 xix e 14 neguaren erdia hemen. xx f 13 S. Sebastian. 9 xxi xxii S.

Vincens. 17 xxiii 6 xxiiii xxv S. Paulen conversi. 14 xxvi Xarlemagne egun 3 xxvii hunekin hil

815. xxviii 11 xxix 19 xxx 8 xxxi

ERREFRAU BILDUMAK:

REFRANES Y SENTENCIAS

1596. urtean Iruñean argitaratu zen liburu bat, Pedro Porrallis Ambereseakoaren inprentan, honako izenburua zuena: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas.*

Autorea nor den ez dakigu. Liburu honek 64 orrialde ditu eta 539 errefrau. Ezagutzen den ale bakarra Van Eys-ek aurkitu zuen 1894. urtean eta Darmstadt-en (Alemanian) gordetzen zen, II. Mundu Gerran desagertu zen arte. Baina Mitxelenak frogatu zuen bezala, ale hau ez dago osorik; izan ere, Oihenartek errefrau hauek ezagutu eta batzuk aipatu zituen. Eta hauek ez dira Van Eysen edizioan agertzen. Beste bi koadernotxo gehiago izango zituela uste da; hau da, 759 errefrau eta 96 orri.

Larramendik, bere *Diccionario Trilingüen*, Kardaberazek Bizkaian liburu edo koaderno zahar bat aurkitu zuela esaten du, zeinak gaztelerazko eta euskarazko errefrauek biltzen zituen. Dударik gabe 1596. urtean Iruñean argitaratutako lan hau zen.

Julio Urquijok errefrau hauek aztertu, iruzkindu eta berrargitaratu zituen. Aipatu zuen Esteban de Garibay izan zitekeela autorea. Baina ez du hala ematen. Guerra eta Urquijoren arabera autoreak Oñati, Aramaio, Arrasate, ... ongi ezagutuko zituen; eta horrexegatik autorea Garibay izan zitekeela esan zuten. Baina Lakarraren arabera, zeinak Garibay eta bilduma honen alderdi linguistikoak sakonki aztertu dituen, autorea humanista bilbotar bat izan behar du. Gaur egun, ez dakigu autorea nor izan zen.

Antzinako errefrau bildumen artean honako hau dugu garrantzitsuena. Errefrau hauetariko asko XV. mendeko bandokideen arteko gatazkei egiten diete erreferentzia; hau dela eta, garrantzitsuak dira hizkuntzalari nola historialarientzat.

Bizkaieraz idatzita daude, gipuzkeraren eragina duen bizkaieraz. Eta oso hizkera arkaikoa da bertan aurkitzen duguna. Herrian zuzenean bildutako errefrauekin batera idazleak itzulitako batzuk aurkitzen ditugu. Izan ere, batzuetan soilik gazteleraz antzeman daitekeen hitz jokoa aurkitzen dugu. Beste batzuetan sintaxia ez da guztiz euskararena. Idazleak, dudarik gabe, gaztelerako errefrau bildumak ezagutzen zituen eta berak batzuk itzuli eta bilduma honetan sartu zituen.

ESTEBAN DE GARIBAY

Esteban de Garibay y Zamalloa 1533. urtean jaio zen Arrasaten. Oñatiko unibertsitatean ikasi zuen; ondoren Gasteizen eta, azkenik, Santo Domingo de la Calzadan. Latina eta grekoa ikasi zituen eta letrak lantzeari ekin zion. 1556. urtean Arrasaten ezkondu zen eta han bizi, historia idazteari ekinez. Bere lan handia sortzeko España eta Portugalera bidaiatu zuen; 1566. urterako bukatu zuen. Urte horretan bertan Felipe II.ak bibliotekari izendatu zuen; eta, 1592.ean kronista erreala.

1570. urtean Flandesera joan zen bere lana ezagutzera ematera, eta hurrengo urtean argitara eman zen (3 tomo eta 40 liburu). Monarkia espainiarra osatzen zuten erreinu guztien historia zen.

Ondoren beste lan bat argitaratu zuen: *Ilustraciones Genealógicas*. Lan hau *Grandezas de España. Noticias de los títulos y casas ilustres* lanaren atal bat zen. Azken hau ez zen argitaratu. Madrilen hil zen 1599. urtean.

- Garibayren errefrauak: *Memorias* bere lanean esaten den bezala, Garibayk bi errefrau bilduma sortu zituen. Baina guri ez zaigu ezta bat ere iritsi. Hala ere, Liburutegi Nazionalean kode bat dago zeinak Garibayren errefrauak biltzen dituen. Kode hau 1854.ean imprimatu zen, *Memorias* liburuaren gehigarri bezala. Kodearen letra XVII. mendekoa da; beraz, beranduago egindako kopia bat da. Honetaz gain, Benito Maestrek 1846an Francisque-Micheli Garibayren beste errefrau batzuk oparitu zizkiola badakigu; azken hauek Francisque-Michelek argitaratu zituen *Proverbes Basques recueillis par Arnauld Oihenart* liburuan, gehigarri bezala.

Julio de Urquijok, *Los refranes de Garibay* bere lanean, bi kolekzio hauen berrargitalpena eta iruzkina egin zuen. Bi kolekzioetan 37 errefrau komun daude.

Garibayk tartetik sartzten dituen erromantzeak (“Oñetako lur au jabilt ikara” edo “Milia Lastur” eta abar) bizkaieraz daude, Oihenarten liburuan agertzen diren errefrauak bezala. Liburutegi Nazionalekoak bizkaieraz idatzita daude ere, baina gipuzkerako eraginarekin (agian XVII. mendean kopiatu zituena gipuzkoarra zelako).

BELTRÁN DE SAUGUIS

Jaurgainek aurkitu zuen lana eta Urquijok publikatu zuen RIEV-en. Beltrán de Sauguis Nafarroako kontseilari izan zen jauntxoa dugu. Poeta zen, baina bere lan poetikoa galdu da; eta errefrau bilduma bat egin zuen. 1627. urtearen inguruan hil zen.

Errefrau-bilduma: *Euscaldunen Erran çaharrac Bertran Sauguis Nafarroa Beherecoa Gorta guehienean Erregueren Conseillari denaren arthas bilduac*. 205 errefrau dira. Horietako asko Oihenartek eta Lope de Isastik bildu zituzten geroago.

Beste batzuk:

- Pierre d'Urte (1715) eta Manuel Larramendi (1745): beren gramatika edo hiztegietan errefrau batzuk aurkitzen ditugu.
- XVIII. mendean Joseph Jesús María Arakistain (?-1765). Larramendiri bere errefrauak bidali zizkion, azken honek bere hiztegiaren berrargitalpenean sar zitzaiz. Fitak argitaratu zituen 1881.ean, "Revista de Ciencias Históricas"en.
- Bildumarik aberatsena Jusses Eguiategui zuberotar filosofoarena: *Oharkerak, esangiak eta bibetak Jusses Eguiateguic Suberoan errejent zenak bildu dutianac*.

4. XVII.MENDEA: AXULAR ETA LAPURDIKO ESKOLA.

4.1 Testuinguru historikoa

Mende honetako gertakaririk aipagarriena kontrarreforma izan zen. Erlijioaren esparruan gertatu zen eta hizkuntzan eragin izugarria izan zuen (itzulpen ugari burutu ziren).

Erlijioari dagokionez, aurreko mendean Martin Luther alemanarekin sortutako protestantismoak eragin zuen erreforma eta zatiketari irtenbidea eman eta aurre egiteko, Eliza Katolikoak kontrarreforma izenarekin ezagun den mugimenduari ekin zion. Mugimendu horren abiapuntua 1545. urtean dugu, Trentoko Kontzilioan, eta sekulako eraldaketa eragin zuen Eliza Katolikoaren barruan; bereziki, dogmei eta eliz diziplinari dagozkionetan. Katolizismo edo erlijioaren definizio berria eman zen: hemendik aurrera erlijio mota hau katolikoa, erromatarra, egiazkoa eta abar izanen da. Trentoko Kontzilioaren ondorioz, gainera, XIII. mendean sortu zen Inkisizioa berriro ere jarriko dute martxan, inkiritzeko (hau da, bideratzeko). Honez gain, zentsura ere martxan jarriko da, inprentaren bidez. Erlijioa, ideologia, argi uztea eta gertatu zen desbideraketarik berriro ez gertatzea zehaztu zen Trenton. Honen ondorioz:

- obra onak areagotu behar ziren
- sinistu behar ziren elementuak markatu zituzten
- maila praktikoan tinkotu egin zituzten katolikoek komunitatea, erlijioaren lerro nagusiak eta praktika soziala

Kontrarreformak dena arautzea lortuko du: finkatuko dira egutegiak, errituak eta abar. Honek guztiak literaturaren adarreztapena ekarriko du; literatura sermoiaren luzapena izango da, etxeraino helduko dena. Izan ere, literatura honen ezaugarriak honako hauek izango dira:

- Pulpitotik haratago dagoen, egin beharreko, zerbait izanen da.
- Ordurarte egindako guztiari muzin egingo zaio.
- Aszetikako liburuak ez dira debekatuko, ezta hizkuntza bulgarrean idatzitako sermoiak ere.

Ordena berri bat sortu zen ere mende honetan: Jesusen Lagundia. Inazio Loiolakoak sortu zuen. Eliza Katolikoaren baitan beste hierarkizazio bat eskaini zuten, Aita Santuak bideratzen zuenaren parekoa. Beltzez janzen ziren, buru zenari “Aita Santu beltzekoa” deitzen zitzaion,... beste estruktura bat sortu zuten. Ideologia berri hori ideologikoki tinkotzea lortu zuten, eta gero mundu osora zabaldu ziren. Inazio Loiolakoa 1556. urtean hil zen eta 70 urtetara Santu bihurtu zuten. Honela, Inazio Loiolakoari zegokion ordaina eman zitzaion eta jesuitak onartu ziren.

Kulturari dagokionean, mende honetan ere Eliza dugu kulturaren gordelekurik garrantzitsuen. Horretan, beraz, ez zen aldaketa handirik izan mende batetik bestera. Bestalde, arteari dagokionez, Errenazimentuko formen garapenak estilo barrokoa ekarri zuen; bai letretara, bai eta arkitektura, eskultura eta pinturara ere. Estilo honen adierazgarri bereziena eta esanguratsuen apaindura-ugaritasuna da.

Bukatzeko, politika eta ekonomiari buruz hitz eginez, Europa osoan zehar monarkia absolutista indartsuak finkatu ziren. Eta Frantzia, hain zuzen ere, potentziarik garrantzitsuen bilakatu zen Luis XIII.aren eta Luis XIV.aren garaian. Horren isla da, ziurrenik, garai hartan Ipar Euskal Herriak izan zuen gorakada ekonomikoa. Hegoaldea, oster, krisialdi gogorrean murgilduta zegoen.

Euskal Herriari dagokionez gure literatura mende honetan batez ere Iparraldean garatuko da eta ildo ezberdinak landuko dituen literatura izango da. Arrazoi ezberdinengatik, ahozkoari helduko dion poesia eta estetikoagoa den poesia eta prosa aurkitzen ditugu. Idazleek akumulazioa egingo dute eta irakurritakoarekin antzeko obra bat sortuko dute. Honez gain, tematikoki bideratuak agertuko zaizkigu lan gehienak.

Prosaren barruan askatasun gehiago izan zuten autoreek. Aszetikako liburuetan Argaignaratz, Axular eta Tartas izan ziren askatasun gehienez jokatu zutenak. Tartasenak, gainera, garaiko predikari eta idazleek nola jokatzen zuten ikusteko balio digu.

Oihenart honen guztiaren kanpo aurkituko dugu. Bere kasua guztiz paraleloa da, poesiaren eskutik. Eta Etxeberri Ziburukoak Etxeparek erakutsitako bertso moldeari eusten diola ikusiko dugu. Izan ere, honela transmititu nahi duena jendearen oroimenean errazago transmititua gera dadin nahi du.

Azkenik, mende honetan Iparraldean (Sara inguruan) idazle talde berezi bat sortu zela aipatzea: Sarako eskola.

ARNAUD OIHENART

Politikari, historialari eta abokatu zuberotarra. Maulen jaio zen 1592. urtean eta Donapaleun hil 1667.ean. Higanotek zituzten eskubideengatik protestatzeko Mauleko hiritarrek diputatu aukeratu zuten. Honez gain, “Silbiet”-eko sindikoa izan zen. Nafarroako kontzelariordearen alargunarekin ezkondu zenez noblezian sartu zen. Nafarroa Behereko parlamentuko abokatu eta Agramonteko etxearen intendente izan zen. Bere azken hogeit hamar urteak historia ikertzen, auziak konpontzen eta auzi horiei buruz idazten eman zituen.

Poesia parametro estetikoetan planteatu zuen eta poesia erlijiosoari jarraitu ez zion lehenengo idazlea dugu. Bere helburua poesia ahozketasunetik atera eta norabide berriak aurkitzea izan zen. Hizkuntzari dagokionez, obre gehiena frantsesez eta latinez egin zuen; baina baita nafar-lapurteraz ere.

Honako hauek dira berak idatzitako lanak:

- *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitaniae*: 1638. urtekoa. Euskal Herriko historia bere osotasunean eta barne perspektibatik lantzen du. Hau da, Euskal Herriko historia Erdi Arora arte kontatu zuen Euskal Herriko ikuspuntutik. Lan honetan, “De silabarum quantitate” artikuluan, bere ikuspegi poetikoaren berri ematen digu, euskararen lehen gramatika bat eraikiz eta bertan silaba kopuruari atal bat eskainiz. Ordura arteko bertsogintzaren moldeak hautsi eta bertsogintza kultu eta berri bat proposatu zuen. Idazle honen aburuz, euskara ez zen egokia grekoz eta latinez egiten ziren bertso motak egiteko. Neurkera finkatzeko helburuarekin elipsia eta sineresia proposatzen ditu salbuespenik gabeko arau gisa. Herri bertsogileekiko haustura planteatzen du. Liburua latinez idatzia dago.
- *L’art poétique basque*: 1665. urtekoa. Aurreko teorizazioaren garapena da. Hala ere, ez zen hiru mende geroago arte argitaratu. Frantsesez idatzia dago.
- *Les Proverbes Basques recueillis par le Sr. D’Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur*: Atsotitz bilduma bat da, 1657. urteko lana (Parisen argitaratua). Euskarazko atsotitzak eta neurtitzak bildu zituen lan honetan argitaratzeko. Bi zati ditu: *Atsotitzac edo Refraua* eta *O’ten gastaroa neurthitzetan* olerkia. Errefrauek lanaren

zatirik handiena betetzen dute. 706 errefrau dira osotara, frantsesez ere agertzen direnak. Bi errefrau mota sailkatu ditzakegu: ahozko tradizioaren bitartez iritsitako esaerak, herri jakintza biltzen dutenak, eta ahozko tradizioarekin loturarik ez dutenak (zehazki neurtuak daudelako, hoskidetasuna nagusi delako eta linguistikoki landuak direlako). Hitzaurre bat du, non euskaraz poesiak idazteko erabilitako eta berak proposatutako ortografi sistemaren berri ematen duen. Errefrauek biltzeko ematen du laguntzaileez edo beste bilduma batzuek baliatu zela.

Oihenarten poemek islatzen dutena ereduaren aberastasuna da. Neurritz 4ko silaba da motzena eta 10ekoa luzeena. Hoskidetasun handia erabiltzen du. Berak proposatzen duen metodologia islatuko da bere poemetan.

Gaiak klasizismoaren ingurukoak izango dira. Bere helburua ludikoa zen arren, bere benetako helburua euskarak poesiarako balio zuela demostratzea izan zen. Hala ere, ondorengo olerkariengan ez du eraginik izango. Izan ere, Oihenart oso berritzailea izan zen bizi izan zen garairako. Berak proposatutako moldeak bi mende geroago agertuko zaizkigu berriz euskal literaturan.

I

*Erranen duta? ahal dezaket,
Egia dena bezala,
Zu begistatuz geroz laket
Zu bezi ehor etzautala.
Bana zer hobe, zuk gorreti
Badagidazu zur' aldeti?
Bana zer hobe, zuk' gorreti
Badagidazu horla beti?*

*Geroz oihana lilitu da
bait' ar'orstatu lauretan;
Ud' ere negu, negi'uda
gerthatu da hain berzetan.
Bana zer hobe etc.*

*Arte hartan, zer ez tut egin
Zureki adizkidetzeko?
Zuk nizaz, nik zuzaz atsegin
Biek oro zbat hartzeko?
Bana zer hobe etc.*

Sarako eskola

Prosari dagokionez, XVII. mendean, Iparraldean, idazle talde bat bildu zen hizkuntza aztertzeko eta lantzeko asmoz. Idazle hauek Saran, Ziburun eta Donibane Lohitzunen biltzen ziren arren, Sarako eskola deitzen zaio talde honi. Talde honetan biltzen ziren pertsonak medikuak eta erlijio gizonak ziren. Beren helburua jendearen kristau heziketa bideratzea izan zen. Beren irakurle edo jarraitzaileei dagokienez, irakurtzen ohituta zeuden pertsona kultuak izan ziren. Erabili zuten hizkera Sara eta Ziburukoa izan zen, herri hizkeratik gertu zegoena. Hizkera hau, ondoren, eredugarria izan zen ondorengo idazleentzat eta lapurtera klasikoa izena hartu zuen.

JOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA

Euskal idazle lapurtarra, Ziburun jaioa 1580. urtearen inguruan. Pabeko Jesusen Lagundian ikasi eta Teologian doktoratu zen. Bere liburuan aurkitzen ditugun datuen arabera, familia aberatsekoa zen eta itsasontzi-olen tradiziokoa. Sarako eskolako kide garrantzitsua izan zen; zenbaiten ustez idazle-talde lapurtar honen gidari ere izan zen. Bere garaikideek humanista handitzat zuten eta XVII. mendeko euskal idazle garrantzitsua izan zen.

Gai erlijiosoeko hiru liburu idatzi zituen, bertsotan. Itsasgizonen erlijiositatea bideratzeko kezka nabari da bere lanetan. Honako hauek dira idatzi zituen lanak:

- *Manual Devotionezcoa*: 1627. urtekoa. Liburu honek dakarren mezua esparru erlijiosokoa da (debozioko eskuliburua da). Herri tradizioan errotua dago; izan ere, 4 / 4 // 4 / 3 neurria darabil eta hoskidetasuna da nagusi. Liburu honen helburua praktikoa da, ez poetikoa.

MANUALAREN IKHASTERA IRATZARMENDUA

*Bat bedera mela bedi duen ofizioaz,
Eta Giristiño dena, prestu izatekoaz.
Berzela du, Kristauaren gezurtatzen deitzea,
Eta Elizari bere goratzen ohorea.
Begira daudenak ditu edifikatzen gaizki,
Eta jende infidelak ere sortzen gogorki.
Dolu belzez estalzen du korte dohatsuena,
Eta arima damnatzen, nihoiz hillen eztena.
Hauk guztiak, Kristau falsoak ohi ditu obratzen
Noiz ere baita, bekhatu mortalean erortzen.
Hartarakotz nekha zaitte, ikhasten Manuala
Eta faltetarik guarda, hura obratzen duzula.*

- *Noelac edo berce canta espiritual berriac Jesucristoren biciaren misterio principalen gainean eta sainduen ohoretan beste bururetacotz: 1631. urtekoa. Gabon-kanten bilduma bat da, Jesusen jaiotza eta bizitzari buruzko zenbait olerkiz osatua. Lau zatitan banatzen da: Eguberriko kanta, Kristoren bizitza, Kristoren misterioak eta Sainduen kanta. Eredu tradizionala aldatu agertzen da liburu honetan: ohiko bertso luzeak erdibiturik daude.*

***BISITAZIONEAREN GAÑEAN
NOELA***

*Gabrielen erranaz zen
orhoit ama Birjina,
semeaz izorra zela
Elisabet kusina.*

*Lehia handiz en haren
ikhustera partitu,
bide luzean baxharrik
oiñez zen abiatu.*

*Ikhe eta iaustegia
zituela pasatzen,
humilki zitzaion zahaits
eta berroak khurtzen.*

*Elisabeten etxera
heldu zen unhatua,
kortesiaz salutatu
bere kusin saindua:*

*«Ungi ediren zarela,
Elisabet maitea:
ungi ediren, emazte
guztien ohorea.*

*»Zeru gorek halakotzat
zaituzte ezagutu,
Gabriel Arkanjeluak
hartzaz nau seguratu».*

- *Eliçara erabiltçeco liburua: 1636. urtekoa. Bertsoz eta prosaz idatzi zituen hemen kristauen eginbeharrak.*

IV. ASTEKO EGUN GUZTIETARAKO ORENAK

Iainkoari orenak gutzaz duen arduraren gañean.

Igandekotz

*O Iainko zeñak baituzu
Gutzaz artha handia,
Adizazu othoi zeure
Orenen eresia.*

*Zure ordenantza sainduz
Irauten du eguna,
Elkharri aldi egiten
Hark eta gau illhunak.*

*Urthearen inguruak
Zu bedinkatzen zaitu,
Sasoñak xuxen ekhartzen
Zeren baitiotzotzu.*

*Tormenta eta harzeak,
Zuk ditutzu ematen,
Itsasoari zuk bere
Mugarriak iñntzen.*

*Iguzkia zuk itzulzen
Darokuzu goizetan,
Hark begiak argiturik
Has gaitezen lanetan.*

*Akhabatu duenean
Gero bere kursua,
Gerizatzen darokuzu
Har dezuzun pausua.*

Etxeberri Ziburukoaren arrakasta izugarria izan zen, beren lanek edizio kopuru handiak izan baitzituzten. Idazle honentzat bertso-moldea erlijiozko mezuak erraz ikasgarzteko eta hedatzeko baliabidea zen. Hizkera naturala erabili zuen (lapurterarena), baita erudizioa ere; eta argudio eta azalpen bikainak ematen zituen. Honez gain, idazkera aberatsa zuela esan daiteke, esamolde ugariz hornitua zenbait pasartetan.

ESTEBE MATERRE

Idazle frantziskotar euskaldunberria, jatorriz frantsesa. Sarako eskolako kideekin harreman estua izan zuen, Axularren laguna izan baitzen; hori zela eta euskaldundu zela uste da. La Réoleko komentu frantziskotarreko atezain eta Frantziako Tolosako komentuko fraide izan zen. Aita Larramendiren idazkiengatik izan da Aita Materreren berri.

Lehen obra euskal marinelei eskaini zien (1616. urtekoa). Bigarren obraren orijinalik ez zen gorde, baina kopiak bai: *Bouqueta Lore Divinoena bereciac eta Duronea apeçac Aita Materren liburuari emendatuak*, 1617. urtean idatzi zuena. *L'horloge spirituelle* eta *Doctrina Cristiana* idatzi zituen ere.

Euskal Herrira predikatzaile moduan etorri zen, baina literaturan ere murgildu zen. Kontrarreformak eman zuen lehendabiziko lana idatzia berea da: *Doctrina Cristiana* (1617. urtekoa).

- *Doctrina Cristiana* (1617): bi edizio izan zituen, bigarrena 1623. urtean izan zelarik. Eta bigarren hau da, hain zuzen ere, guri iritsi zaiguna; edizio hobetua eta osatuagoa izan zen. Liburuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- literatur kontrarreformataren beharraz kontzientzia duen lehena dela nabari da.
- formatua berak ematen dio (lapurteraz).
- eginkizun praktikoa du literarioa baino gehiago.

Liburuak hiru zati ditu: hitzaurrea (“Euscalduney”), “Iracurçailleari” eta obra. Banaka aztertuko ditugu:

- Hitzaurrea (“Euscalduney”): Atal honen helburua formakuntza da. Pausoz pauso hasi behar dela azaltzen du, gaitzetsi beharrekoa aipatuz. Trentotik aurrerako panorama azaltzeko erabiltzen du zati hau eta alfabetatu beharra aldarrikatzen du. Erretorika darabil eta adibide zehatzak jartzen ditu, irakurleen imaginarioa zabaltzeko eta mezua hobe barnera dezaten. Frantseseko dedikatoria bat agertzen da ere.

EUSKALDUNEI

Miretsiko duzue agian nik (Euskal-herriko ez naizelarik) Euskaraz eskiribatzeko ausartziaren hartzea. Baiña baldin konsidera ba-dadi edirenen duzue eztela gauza hunetan ausarrizirik, eta ez zer miretsirik: aitzitik bertzela egin ba-nu miretsi behar zatekeiela eta erran ahanzi zitzaitala neure eginbidea. Zeren Iainkoak niri hitzkunza hunen ikasteko enze aphur bat eman derautanaz geroz, iduritzen zait hoben nukeiela, eta ere ezagutza gutitako eta esker gabe izanen ninzela, baldin Euskal-herrian ikasia Euskal-herriko probetxutan enplegatuz ez-panu.

Ebanjelioko zerbitzari alfer hura gaztigatu zuen bere nabusiak, zeren irabazian erabiltzeko erretribitu zuen talentua eta dirua estalia eta ehortzia eduki zuen. Handik izan noiz ni ere beldur hala gertha zekidan, baldin Euskaraz menzatzeko ardiesi dudan talentua eta iakina arima irabazian enplegatuz gabe ehortzia eta gordea edukitzen banuen. Eta etzait iduri asko dela Kadiratik predikatuz probetxu egitea baiña are uste dut eskiribuz ere behar dela enseiatu eta trabaillatu.

Eta nola lanak zimendutik behar baitu hasi, eta gure salbamenduko obraren zimendua baita Doktrina Kristiana, halatan nik ere, handik hasten naizela, hartu dut gogo liburutto hunen egiteko, eta iendartera atheratzeko, hunetan (bertze erakuslerik eztenean) ikus dadin laburzki zer-ere sinhetsi, obratu, eta esktu behar baita; Eta gero ikus dadin halaber nola behar den Euskara eskiribatu eta irakurtu.

Gaiñerakoan badakit Euskal-Herria añhitz moldez minzatzan direla, eta nor bere herriko Euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogoka emaitan deraut ene eskiribatzeko molde haur etzaiela guztiei ongi idurituko: baiña nahi dut iakin dezaten halakoek nek hitzkuntza hunetan dakidana Saran ikasi dudala, eta hango euskara ongi erabiltzen badut ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuiatzeko, zeren ez paitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako Euskara denz Euskal-herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen, bat-bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako Euskara hunetzaz kontent eztenak ezkiriba beza bertze Euskara hobeago batez eta hobeakiago, ez naiz ni hargatik bekaiztuko, eta ez inbidios izanen. Finean hemen den guztia borondate on batekin Iainkoaren ohoretan eta arimen probetxutan egina da: Hala beraz errezebi ezazue, eta zuen orazinoetan egin nazazue partale.

- **“Iracurçaleari”**: Bigarren edizioaren atala da, lehenengo edizioari buruz esan dena zuzendu egiten du. Hirugarren zati bat gehitzen duela azaltzen du.

IRAKURZAILEARI

Nola bethiere aprendiz eta ikas-behar baikara, eta gaitz baita obra baten alde guztiz jugen nehork ezin arbuia dezakeien bezala egitea, beha egotu naiz ea zer erraiten zuten iendek nik zerbait urthute duela eskiribatu nuen giristinoaren Dotrinaz, eta ediren dut ezen batzuen artean hartaz zebilan solhasa, eta erraiten zena zela Dotrina eta Dotrinaren deklarazinoa ez elkarrekin, baiña beregainki eta bereziki bi partetan ibeni behar zirela. Bada halako hrl atsegin egiteagatik, eta renoni ere eztela gaizkiago iduriturit berezi ditut elkar ganik, eta egin bi parte. Eta zeren añhitz baita Euskal-herrian irakurtzen dakienik, baiña ez Euskara baizen bertze hitzkunzarik aditzen, halatan egin ditut halakoenzat Euskaraz debozinozko othoitz eta Orazino batzuk, goizetan, arratsetan, eta bertze añhitz denboratan eta okasinotan egin eta erran ahal ditezkeienak, zeinetaz egiten baitut hirugarren partea, Guztiak dohazi borondate on batez eginak. Egiezu begitarte, eta errezebi itzazu nik zeurerk balira errezebi nitzan nahi zendukeien bezala.

- Obra: hiru zatitan banatzen da:

- 1. zatia: Itzulpena eta moldaketa agertzen dira hemen, iruzkinik gabe. Benetako oinarriak zeintzuk diren jakiteko.
- 2. zatia: Galdera-erantzunez osatzen da atal hau.
- 3. zatia: Une ezberdinetan egiteko otoitzak agertzen dira. Marinelak kontuan hartzen ditu, bizimodu arautu gabea eta bekaturako bidea delako, bere ustez. Irakurketa kolektibora bideratua dago, alfabetizazioa bultzatuz.

Materrek hizkera populista darabil bere lanetan, ez du mailegurik erabiltzen. Izan ere, ez du zalantzarik sortu nahi eta, horregatik, ez du metaforarik ez anbiguotasunik erabiltzen.

JEAN HARAMBOURE

Euskal idazle lapurtarra, Saran jaioa. Eliz ikasketak egin zituen, frantziskotarra izan zelarik hau ere, eta Sarako eskolako kide izan zen. Ez dago datu gehiegirik berari buruz. Bordelen *Devocino escuarra, miraila eta oracinotegua* otoitz-orduen liburua argitaratu zuen 1635. urtean, sinatu gabe. Marinelei zuzendutako liburua da. Aturbeko artzapezpikuari eginiko eskaintzarekin eta Harizmendiren (bere garaiko beste idazle baten) bertso batzuekin berrargitaratu zen bere liburu hau 1690. urtean.

Hitzaurrean azaltzen du zergatik idatzi duen liburua eta ondoren ongi irakurri eta ulertu ahal izateko argibide batzuk ematen ditu.

DEBOZINO ESKUARRA,
miraila eta orazinotegia.
Birjinaren debozinoa, marinelena eta
san Franzesen heren ordena,
berze anhitz debozinozko othoitzekin
girstinoen probetxutan guzia travaillatua.

Obra debozinozkoetarik trazatua,
egileak berak ere bere baitharik
debotki aberatstua eta pontualki egina.

Bordelen, P. de la Covre erregeren
ardurako inprimatzaille baithan.
1635

PIERRE D' ARGAINARATS

Euskal idazle lapurtarra dugu hau ere. Ziburuko apaiza izan zen eta bi lan idatzi zituen euskaraz:

- *Avisu eta exortacionea provetchosac bakhatorentzat*: Bordelen argitaratu zen 1641. urtean. Hitz lauz idatzita dago. 572 orrialdekoa zen, baina gaur egun galdua dago. Larramendik (XVIII. mendeko idazleak) honen edizio bat ezagutu zuen eta, azken honen iritziz, orijinaltasun maila handia zuen.
- *Devoten breviarioa*: Bertso-liburu bat da, 1665. urtean argitaratua. Ahapaldiak 4 bertso lerrokoak eta hoskidetasuna 1-3 eta 2-4 bertso lerroen artean mantentzen du.

SAKRAMENDU SAINDUAREN ERREZIBITZEKO

AITZINETIK EGITEKO OTHOITZA

*Heldu naiz aldarean
Banket preziatura,
Zure seme bakhotxaren,
Iauna, Sakramendura.*

*Baiñan beharra bezala,
Heldu naiz haren gana,
Eria doan bezala,
Mirikuaren gana.*

*Lizun eta tatxatua,
Ithurri Sakratura,
Iauna, gero garbitua,
Nadiñ zure gustura.*

*Itsutua argiaren,
Nola ahal, ondoan,
Gorputz Preziatuaren,
Huna, Iauna, non noan.*

PEDRO AGUERRE AZPILKUETA, "AXULAR"

Euskal idazle nafarra da, Urdazubin 1556. urtean jaioa eta Saran 1644. urtean hildakoa. Euskal prosaren idazlerik oparoenetakoa izan zen eta euskal literaturaren maisu nagusitzat hartu ohi da. Lapurdiko mugan dagoen *Axular* baserrian jaio zen, eta hortik datorkio goitizenaren. Salamancan egin zituen goi-mailako ikasketak eta Aturben apaiztu egin zen 1596. urtean. Donibane Lohitzunen bizi izan zen bost urtez eta han predikari moduan nabarmendu zen. 1600. urtean Sarako erretore izendatu zuten, bere babesle izan zen Bertrand Etxahuz Baionako apezpikuak lagunduta.

XVII. mendearen hasieran erlijio eta eliz barrutiko arazoak eztabaidatu eta ebatzi eta kristauak debozio-liburuaren bidez elizara eramateko beharraz jarduteko Saran sortutako Sarako eskolako sortzaile eta kideetako bat izan zen. Bertan idatzi zuen bere lan bakarra: *Guero, bi partetan partituta eta berecia*, 1643. urtekoa. Liburu honi esker predikari handi eta jakintsuaren irudi mitikoa lortu zuen Axularrek. Hauek dira liburuaren ezaugarriak:

- Hizkuntzari dagokionez, euskalkien ezberdintasuna azpimarratu zuen eta denetara lotzeko ezintasuna. Horregatik, bere lana idazteko orduan, bere euskalkian aritu zen.
- Hartzaileari dagokionez, bere lana euskaldun hutsentzat dela dio. Honez gain, euskaraz gutxi idatzi dela azpimarratzen du.
- Aukeratu zuen gaiari dagokionez, erlijioa da nagusi. Alferkeriaz ari da, bekaturako bidea delako. Eta liburuaren helburua bekataria onbideratzea izango da.
- Bere liburua idazterako orduan izan zituen edo kontuan hartu zituen aurrekariak honako hauek izan ziren: Materreren lana (izan ere, hainbat ideia hemendik hartu zituen), Leizarragaren lana (aipamenak egiten baitizkio) eta Fray Luis de Granada idazle espainiarraren lana.

Guero liburua, esan dugun bezala, 1643. urtean argitaratu zen. Nahiz eta idazleak azalean bi zatitan idatzita dagoela esan, ez dago bigarren zatirik. Pentsatzen da ez ziola denborarik eman hil egin zelako. Honela, liburu honek 623 orrialde ditu eta jarraian aztertuko ditugun lau zatitan banatuta dago: Hitzaurrea, "Irakurtzaileari", "Gomendiozko karta" eta obra bera. Lehenengo edizioaren ale ugari baziren ere, sei besterik ez dira gorde.

- Hitzaurrea: Liburua aurkezten du euskaraz gutxi idatzi dela esanez eta, ondoren, euskaraz non egiten den azaltzen du. Euskara beste hizkuntzekiko ezberdina dela dio (Leizarragak egin zuen moduan). Honez gain, irakurketa fede gaiztorik gabe egiteko eskatzen dio irakurleari, irakurleak berak idatzi balu bezala irakurtzeko.
- “Irakurtzaileari”: Atal xumeagoa da hau. Liburua aurkezten du berriro ere, erdibidekoa eta euskaldunentzat dela esanez. Zergatik erabaki zuen liburu hau idaztea eta zergatik aukeratu zuen liburu hau azaltzen du. Hau guztia irakurleari kontatzen dio, liburu irakurtzen hasi aurretik jakin dezan.

Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere.

Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuizatzeko kontuan ere. Baiña intenzione on batekin, zeurea, zeurk egina baitzendu bezala, eta baldin halatan eta orduan, bat ere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu, zeren hura guztia Iainkoaganik heldu baitateke, eta ez eneganik faltarik baizen, hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi.

- “Gomendiozko karta”: Bertrand Etxahuzen garrantziaz dihardu eta barkamena eskatzen dio berandu ibiltzeagatik. Pertsonaren laudorioaz gain leinuarena ere egiten du, nobletasun hori aspaldidanik datorkiola frogatzeko edo. Gutun bat da.

GOMENDIOZKO KARTA

I *Ene iaun BERTRAND DE ECHAUS, Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari: Ordenako aitonen seme, eta erregeren Konseillari famatuari.*

ZERUKO LORIA

Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezipituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

- Obra: 60 atal ditu zati honek. Garapen orokorra du eta sermoiak egiteko eskema mantendu egiten da. Hiru azpiataletan banatzen da:

- Aurkezpena: Bibliaren aipamena da, eta liburu honetako iturriak erabiltzen ditu. Hau guztia autoritatea markatzeko egiten du.
- Azalpena: Ideien garapena egiten du hemen. Honetarako, estilo luzea eta lasaia darabil. Edozein predikaziorako korpus bat bezalakoa da, non argudiaketa nagusi den. Azpiatalik luzeena da eta, estilo argumentatiboa darabilenez, esaldi luzeak, azalpenezkoak, ipuintxoak eta abar aurkitzen ditugu.
- Laburpena: Azpiatal honekin entzuleari zuzenean eragin nahi dio. Hunkitzea da bere helburua eta horretarako estilo bortitza, zorrotza eta zuzenezkoa darabil. Esaldi motzak, harridurak, puntuak eta abar aurkitzen ditugu. Ideiak zehatz eta garbi azaltzen dira.

Axularren estiloari dagokionez, errekurtsu linguistiko eta erretorikoak etengabe erabili zituen; honez gain, obraren muina eta ezaugarririk garrantzitsuena egitura edo elementu hirukoitza da. Axularri ez zitzaion hitzak aurrezteak interesatzen; mezua osatu eta helarazi nahi zuen. Hori izango da bere helburua liburu hau idazterakoan; eta, horretarako, honako baliabide hauek erabiliko ditu:

- esaldien garapen erredundantea (paralelismo sintaktikoak, oihartzun fonetiko etengabea,...)
- egitura anaforikoak (indarra emateko)
- graduazioak esparru semantiko berdineko hitzekin
- hoskidetasuna
- isosilabismoa
- puntuazioa eta emendiozko juntagailuen erabilera

Axular, erabilitako hizkerarengatik eta egindako egitura gramatikal, egitura sintaktiko eta joskerarengatik, eredu bilakatu zen bere ondorengo idazleentzat. Lan bikaina burutu zuen, ulergarria euskaldun ororentzat eta euskara bikain erabiliz. XVII. mendeko, eta agian mende guztietako, euskal idazlerik hoberena izan zen.

JEAN D' ARAMBILLAGA

Euskal idazle lapurtarra izan zen hau. Ahetzen jaio zen eta Ziburuko erretore izan zen. Tomas Kempiskoaren *Jesu Christoren Imitazionea* liburua itzuli zuen, izenburu horrekin. Liburu honen euskaraz eginiko lehendabiziko bertsioa izan zen (ondoren bertsio asko egin dira).

Lapurteraz idatzi zuen eta arazo ekonomikoak medio, hirugarren eta laugarren liburukiak bakarrik argitaratu zituen, 1684. urtean. Hitzaurrea Gaspard de Prielle Baionako apezpikuari zuzendua dago.

XVIII. GARREN KAPITULUA *Nola misterio hunen beheratasuna esten fundatu behar, eta nola arrazoïña fedearen aspian eman behar den*

JESU KRISTOK

Begirautzu misterio handi hunen beheratasuna penetratu nahi izatetik, bilhatze kurios era progotxu gabeko batez, sinhetsgortasunaren thulunbioan eror etzaitezen.

Iainko goraren majestatea fundatu nahi duena, bere gloriaren pisuan nekhatua izaren da.

Gizonak konprendi dezaken baiño gehiago Iainkoak egiñ dezake.

Sofri deiteke bilhatze humil eta arrazoineso bat, bethi instrukzionaen errezibitzeko prest dena, aita sainduen oiñ urratsen ondoan arthatsuki bilhatzeko, hekien doktrina xoilki segitzen dela.

Haiñaren sinplizitatea dohatsua da, zeïña, kestione gaitz eta nahasietan nekhatzen estela, Iainkoaren manamenduetan segurantzarekien baitabilla.

Hainitzek debozionearen grazia galdu dute; bere buruaz goragoko gauzak penetratu nahi izan ditustenean.

Gizonenganik fede egiasko eta bizitze garbi bat galdegiten dut, eta ez intelijentzia gora eta ene misterioen penetracione behera bat.

Baldiñ gauzaren beherenak eziñ konzebi ahal baitetzaketzu, nola nahitutzu egiñ zutaz infinituki gorago direnak!

Fedearen obediencian, zure ispiritua beheiti zazu ene aitziñean, eta zienziaren argia emaren darotzut, zure salbamenduarentzat progotxusko eta nezesario izaren den araberat.

Badire borthiski misterio hunen sinheteaz tentatuak direnak, baiñan hori hekien etsaiaren maleziatik hobeki heldu da, ezen ez hetarik beretarik.

Etzaitezela zeure pensamenduekien disputa; ez hekiekiñ penetan eman, ez ihardets deabruak zure arimarat ematen dituen dudei, baiñan fermuki sinhetz diozozute Iainkoaren hitzari, Profeten Orakleei, Sainduen autoritateari, eta maleziaren ispiritua zureganik ihesi joaren da.

Batzuetan hagitz progotxusko da Iainkoaren zerbitzariarentzat manera huntan tentatua izateaz.

SILVAIN POUVREAU

Jaiotzez frantsesa zen euskal idazlea. Bourgesen jaio zen (ez dakigu noiz) eta Parisen hil zen 1675. urtearen inguruan. Saint Cirango abadearen idazkaria izan zen. Azken honek euskaraz egiten zuen eta Pouvreaux euskara ikastea erabaki zuen. Horrela, Baionara joan zen eta Bidarteko erretoretza lortu zuen. Orduan sortu berria zen Sarako eskolako kide egin zen. Parisera itzuli zen, baina inoiz ez zuen galdu Euskal Herriarekiko eta euskararekiko zuen lotura.

Gai erlijiosoko obrak euskaratu zituen; hala nola Kicheliuren lana den *Guiristinoaren Dotrina* (Paris, 1656), San Francisco de Salesen lana *Philothea; San Frantzisko Saleskoaren bizitza sailduaren sarrera* (Paris, 1664) edo Lorenzo Scupoliren *Gudu izpirituala* (Paris, 1665). Euskal gramatika eta hiztegiei buruz ere lan batzuk egin zituen, beranduago argitaratu zirenak. Argitaratu gabe dagoen euskara-frantsesa hiztegi bat ere idatzi zuen; bertan Oihenart, Axular eta beste hainbat idazleren aipamena egin zuen.

Hiztegia prestatzen ari zen bitartean Parisen zegoen eta Oihenartek eta berak gutunak idazten zizkieten elkarri. Bertan aipatutakoarengatik euskara, latina eta frantsesaz gain, hebraiera, gaztelania eta italiara ere ezagutzen zituela ikusi da.

Bere lanetan euskararen sintaxi lehor bortitza erabili zuen, eta horregatik kritikatu izan zen.

*Zertan datzan Giristinoaren perfekzioea;
gudukatu behar dela haren ardiesteko,
eta gudu hunetan
premiatzko diren lau gauzez*

LEHEN KAPITULUA

Nahi naduzu, ene alaba IESU KRISTO baitan guziz maitea, Perfekzioeko punturik gorena ardietsi, eta gure Iainkoarekin bat egiten zarela, harekin espirtu ber-bat noizbait izan, zein bait sekulan erran, edo pensa ditekeien enseiurik handiena eta nobleena, behar duzu lehenik ezagutu zertan dagoen egiazko eta zinezko bizitze espirituala.

Zeren hainitzek aitzinago behatu gabe Perfekzioea ezarri dute bizitze hersian, haragiaren heztean, ziliziotan, azotetan eta diziflinetan, beilla luzetan, baruretan, eta bertze halako mortifikazionetan, eta gorputzeko penaduretan.

Bertzeek, eta beregainki emasteek uste dute perfekzioean hagitz aitzinatu direla, noiz ere hainitz ahoko othoitz erraiten baitute, hainitz Meza eta Ofizio luze enzuten, hainitz Eliza bisitatzen, eta hainitzetan Aldareko Sakramendu Saindua errezebitzen baitute.

Hainlitz bertzek (zeinen artean zenbait aldiz kausitzen baitira fraideen habitua ekhartzen duten eta kalaustretan bizi diren batzu) uste izan dute Perfekzioe osoa [...] bethi koroan kausitzea, ixilik egoitea, gelan egoitea, eta fraide-legeak begiratzea.

Eta horrela, bada obra horietan, eta bada bertze horrelakoetan perfekzioea emaiten duenik.

5. XVIII.MENDEA: GIPUZKOA: LARRAMENDI ETA BERE ERAGINA. KARDABERAZ, MENDIBURU. IPARRALDE: ETXEBERRI SARAKOA. NAFARROA: JOAKIN LIZARRAGA ELKANOKOA.

5.1 Testuinguru historikoa

Argien mendea edo Ilustrazioa izenez ezagutzen da mendeko hau. Mendeko honetan errealitatea ikusteko modua aldatu zen. Hemendik aurrera arrazionalismoa, enpirismoa eta gizakia baloratuko dira gainerako guztiaren gainetik. Arrazoiek eta ekintzek balio handiagoa izango dute eta, horren ondorioz, hezkuntzaren mendea izanen da. Hezkuntza sistema indartuko da eta honen ezaugarriak diren esparru enpirikoa, erlijiosoa, zientifikoa eta letretakoa ere.

Mendeko honek batez ere Frantzia izan zuen loratzea. Eta hau Entziklopediaren sorrerarekin izan zuen gaina.

Jesusen Lagundiko kideak aldaketa hauen guztien aurka agertuko dira eta horregatik Espainiatik kanporatuko dituzte (horien artean gure bi idazle: Kardaberaz eta Mendiburu).

Gizartea eta politikari dagokionez, jakintzagai guztiek bezala, medikuntzak ere aurrera egin zuen. Horrela, bizi-baldintzak hobetu ziren, hilkortasun tasa gutxituz eta biztanleria gora eginez.

Bestalde, Europa osoan apurka-apurka indarra eskuratzen zihuan burgesia. Burgesia izan zen, hain zuzen ere, 1789. urtean, monarkiaren, goi-nobleziaren eta kleroaren pribilegioen aurka, Iraultza Frantsesari abia eman ziona.

Iraultza Frantsesak aldaketa asko eragin zituen politika eta gizartean, baina ez zion onik ekarri errejimen zaharreko Euskal Herriari. Iparraldeari dagokionez, foruak deseginarazi eta dena zentralizatu zen. Hegoaldeak ere, alde horretatik, arazoak izan zituen: Karlos II.aren aurka Austriako etxea hil eta Borboitarren dinastia hasi zen haren oinordekoarekin: Felipe V.aren aurka. Borboitarrek Frantzia hartutako bide bera inposatu nahi izan zuen Espainian: absolutismoa eta zentralizazioa. Horrela, bada, Hegoaldean ere foruak behin eta berriro jarri ziren kolokan. 1794. urtean, azkenik, Frantziako Konbentzioko tropek Euskal Herria inbaditu eta hainbat ondasunez jabetu ziren.

Ekonomiari dagokionez, XVIII. mendeko ekonomiak gora-behera handiak izan zituen. Matxinada bi egon ziren: 1718koa, aduanen leku-aldaketak eragindako zergen aurkakoa, eta 1766koa, zerealen prezioaz burgesiak eta beste talde askok eragindako espekulazioak sorrarazitakoa.

Hala ere, aldikada onak izan zituen Euskal Herriak. Izan ere, 1728. urtean Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra sortu zen, Amerikarekiko komertzioa Sevilla edo Cadizetik pasatu gabe egiteko baimena eskuratu zelarik. Horrek, Hegoaldean bereziki, egoera ekonomikoaren gorakada ekarri zuen, eta ondoren ikusiko ditugun ekimen kulturalak sortzeko aukera eskaini.

Kultura eta arteari dagokionez, Euskal Herrian ez zen berrikuntzarik egon. Ilustrazioa nobleziak landuko du soilik. Iparraldean ia ez da mugimendu honen eraginik sumatuko; eta Hegoaldean, lehen esan bezala, hau guztia aristokraziak landuko du. Honela bi talde sortuko dira:

- Euskal Herriko Adiskideen Elkartea: Erakunde Interprobintziala. Bere leloa: “hirurak bat”. Xabier Munibe buru zuela, kulturaz interesatuta zegoen taldea bildu zuen elkarte: Azkoitiko zalduntxoak izenez ezagutuak izan ziren.
- Bergarako Mintegia: eskola bat, erreferentzia frantziarrek gidatutakoa. Gazteen prestakuntzarako zen. Letra eta zientzien esparrua landuko da. Lanerako hizkuntza ez da euskara izango. Hala ere, euskaraz lan batzuk argitaratu zituzten: bertso-sorta batzuk eta Xabier Muniberen antzerkia.

Literaturaren esparruan genero didaktikoa landuko da; izan ere, literatura erabilgarria izan behar dela uste zuten. Honela, eta hizkuntzaren inguruko literatura landuko denez, hizkuntzaren apologiak eta lexikoaren lanketa aurkituko ditugu, batez ere, mende honetako produkzioan.

IPARRALDE:

JOANNES ETXEBERRI SARAKOA

Saran jaio zen 1668. urtean. Pabeko Jesusen Lagundian medikuntza ikasketak egin zituen. Ondoren, jada medikua zelarik, Hegoaldera etorri zen lanera. Beran, Hondarribian eta, azkenik, Azkoitian bizi izan zen. Azkeneko herri honetan hil zen 1749. urtean.

Berak idatzitako hiru lan gorde dira, nahiz eta ez ziren argitaratu. Izan ere, gero azalduko dugunez, gutun bat idatzi zion Lapurdiko Biltzarrari bere lanak argitaratzeko diru laguntza eskatuz; baina ez zioten diru laguntzarik eman. Horregatik ezin izan zuen ezer argitaratu.

Bere lanaren helburuak euskal hizkuntza goraiatzea eta berau irakaskuntzara eramatea izan ziren. Hona hemen, bada, berak idatzitako lanen ezaugarriak:

- *Escuaraco hatsapenac*: 1712. urterako bukatu zuen lan hau; baina lehen azaldutako arrazoiengatik, ez zen XX. mendea arte argitaratu. Hizkuntzaren gramatika bat da; euskaratik abiatuta latina ikasteko gramatika, hain zuzen ere. Lan honek alderdi apologetiko bat badu ere, zeina hizkuntzaren aberastasuna adierazteko idatzi zuen. Bertan azaltzen diren ideiak honako hauek dira:
 - hizkuntza bakarra dugula (hau da, euskalki guztiek hizkuntza bera eta bakarra osatzen dutela)
 - eredu baten beharra dagoela; izan ere, idazterako orduan zalantza asko zituzten, jarraitzeko eredurik ez zutelako. Horregatik planteatzen du hau. Eta berak proposatuko duen eredua Axularren estiloa izanen da.

Lan honen barnean “Escuararen hatsapenac” izenburua duen atala aurkitzen dugu. Honako honetan ideia ezberdinak azpimarratzen ditu Etxeberri Sarakoak; hala nola zuhertasuna eta jakintasuna, euskara hizkuntza garbia dela, euskarak ez duela aldaketarik jasan, hizkuntza noblea dela, gainerako hizkuntzetatik ez duela ezer eta bat bakarra eta berezia dela. Horrez gain, arrazoiak ematen dizkie euskaldunei euskara ikastera itzul daitezen.

ESKUARA GARBIA DA

Axular gure Errotor famatuak ederki ukitzen du pontu hau noiz eta ere baitio, Aitzitik badirudi, ezen bertze hitzkuntza, eta lenguaia guztiak bata bertzearekin nahasiak direla; baina Eskuara bere lehenbiziko hastean, eta garbitasunean dagoela, p. 20. zeren lenguaia hala zahar, nola berri, eta arrotz, ja hain komun, eta ardurako egindirenen artean den nahastakadura baithoa egun guztiaz aitzinatuz, eta hedatuz, hala nola goaja handiak lurra arrobatuz bere iragaitzako lekhua baitarama zabalduz, eta hala nahastakadura hau dela kausa hainitz jendaki suertek ossoki utzituzte galtzera bere hitzkuntzak; ezen konsiderabadezagu munduan izandiren hitzkuntzarik famatuenak, Hebreoa, Grekoa, eta Latina, noizbait ardurako, eta komunzebiltzanak, edirenendugu ja estudiantuz baizik nihork eztituela ikhasten, eta ja erregelen manera, eta bat bederaren traballura eroriak daudela: bainan Eskuara egundainotik, eta bere lehenbiziko hatsapenetik ardurako, eta komun izandena, gure Eskual herri hunetan orai ere hala konseruatzen, eta mantenatzen da;

- Hiztegi bat, lau hizkuntzatan. Ez zuen argitaratu, baina Larramendik, ondoren, bere lanetarako erabili zuen.
- *Lau-Urdiri gomendiozco carta, edo guthuna*: Hauxe da Etxeberri Sarakoak Lapurdiko Biltzarrari bidali zion eskutitza. Honen bidez prestatuta zituen bi lan (gramatika eta hiztegia) argitaratzeko diru laguntza eskatzen zion. Honetarako bere seme zaharrena bidali zuen eskutitzarekin batera. Izan ere, bere seme zaharrenak *Escuaraco hatsapenac* gramatikarekin ikasi zuen latina. Beraz, hori zen bere metodoa funtzionatzen zuela demostratzeko biderik onena. Hala ere, ez zuen diru laguntzarik lortu.

Eztut bada dutatzen JAUNAK, zuek-ere egiazko Eskualdun eta Lau-urtar bezala, eztuzuela amodio eta borondate bera zebe herriarentzat eta herriko hitzkuntzarentzat. Esperantza horrek neure baithan mugidutarik eta beroturik, heldu natzaitzue neure obrattoaren ofrendatzera, agian bide hunetaz gure herriko semeek zenbait laguntza edo fagore errezibituko dutela; eta oraino, zenbait lo datzan-ere Eskuaraz iskiribatzen behar-bada atzar-araziko; arren beraz errezibi zazue Ebangelioko emakume pobretto haren kornadua errezibitua izan zen bezala: eta zuen borondatea hala delarikan ilkhiko da argitara. Hau da mandari bat aitzinat berri jakitera bezala dohana, eta bide-nabar ikhustera, nork zer begitarte eginen dioen; zeren perpausen esplikazinoa [zeina Franzesez deitzen baita les Particules, eta Espainolez, la Platiquilla de las Oraciones, baihalaber Syntaxa] eta bertze gainerako Gramatikari dagozkan gauzak, hunen begira baitaude, hunek zer iragaiten den edo nolako begitarte izaiten duen eta nor nola mintzo den ikhusi eta jakin eta ondoan, kanporat ilkhitzeko edo barrenean gelditzeko.

Eta baldin ene obra bere baithan ez bada ona, sinhets zazue bederen, ona dela Theologoen erregelaren eredura Quidquid agant homines, intentio judicat omnes. Zer-nahi dagiten Gizonek, intenzinoak neurtzen tu hekien obrak, eta-hala JAUNAK sinhets zazue bethiere naizela borondate eta bihotz on batekin,

Zuen zerbitzari Tipiena, eta obligatuena,

Etxeberri Sarakoaren idazkeraren ezaugarriak honako hauek dira:

- hizkuntza modu argi eta gustagarrian darabil
- argudiaketa indartsua erabiltzen du
- Axularren ereduari jarraitzen dio
- aipuen erabilera joria egiten du

GIPUZKOA

MANUEL GARAGORRI LARRAMENDI

Euskal idazle hau Andoainen jaio zen 1690. urtean. Hamazazpi urterekin jesuitetan sartu zen. Filosofia Medina del Campon eta Teologia Salamancako unibertsitatean ikasi zuen. Sermoilari trebea eta entzute handiko hizlaria izanik, itzal handia lortu zuen. Erregearen alargunaren konfessore hiru urtez ibili ondoren, Loiolara erretiratu zen eta orduan ekin zion euskal hizkuntza aztertzeari; euskal munduan zentratu zen. Euskarari buruzko lanak idazteaz gain, Gipuzkoa osoan zehar sermoilari ibili zen eta era ezberdinetako arazoak konpontzen eta baretzen saiatu zen. Jenioz bizia eta alaia, borrokalari eta zirikatzaile abila zen eta euskararen etsaiak hitzarekin jolas eginez isilarazten saiatu zen. Kultura handi eta zabalekoa zela erakutsi zuen euskararen eta euskaldunen jatorriari buruz edo euskal foruen defentsan eskainitako liburuetan. Jesuitetan halako giro literarioaren suspertzailea izan zen. Jakintsu eta zorrotza, hainbat euskaldun kultu euskara defendatzera eta euskaraz idaztera bultzatu zituen. Jarraitzaile ugari izan zituen: Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Lizarraga Elkanokoa eta abar. Idazle bezala, bere amaren abizena erabili zuen lehenengoa bezala.

Euskal apologista sutsua izan zen, baina oso gutxi idatzi zuen euskaraz; soilik Mendibururen liburu baten hitzaurrea, eskutitzak eta berak erdaraz idatzitakoetan barreiaturiko euskarazko olerki eta hainbat pasarte. Oso kritikatu izan da gazteleraz idazteagatik; baina, batzuen ustez, ahalik eta jende gehiagorengana (eta, batez ere, espainolengana) iristeko helburuarekin egin zuen.

Baina oso idazle garrantzitsua izan zela ez du inork ukatzen. Izan ere, berari esker, euskararenganako maitasuna demostratu zuelako eta euskara goraipatu zuelako, ondorengo apaiz asko idazteari ekin zion. “Idaztarazlea” izan zela esan ohi da. Hiru lan idatzi zituen, orain azalduko ditugunak. Loiolan hil zen 1766. urtean.

- *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España*: 1728. urtean argitaratu zen lan hau. Ez da oso luzea eta euskararen apologia bat da; hau da, euskararen defentsan idatzitako lana da. Hemen Tubalismoaren defendatzaile bezala agertzen zaigu Larramendi. Tubalismoa teoria bat da, zeinak honako hau defendatzen duen: Tubalismoaren arabera, Babelgo dorrean hizkuntzak banatu zirenean Tubali (Noeren ilobari) euskara egokitu zitzaion, eta azken hau bere familiarekin (eta euskararekin) penintsulara etorri zen. Honela, euskara Babelgo dorretik existitzen den hizkuntza dela defendatzen da. Eta, bide batez, penintsulako hizkuntzarik zaharrena dela. Hauek dira lan honetan aurkitzen ditugun ideiarik garrantzitsuenak.

- *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*: 1729. urtean argitaratu zen lan hau eta aurrekoaren luzapena da. Garai honetan autore espainiarrek (batez ere Mariana izeneko batek) euskara hizkuntza basatia zela eta ez zuela gramatikarik esaten zuten. Orduan Larramendik euskararen gramatika bat prestatzeari ekin zion haiei euskara hizkuntza garbia eta noblea zela demostratzeko. Eta hau da gramatika hori; horregatik jarri zion izenburu hori. Lan hau euskara hizkuntza erabilgarria zela demostratzeko idatzi zuen, orduan. Horretarako honako argudioak eta ideiak ematen ditu:
 - euskara Espainia osoko hizkuntza izan zela (hau frogatzeko toponimia aztertu zuen eta euskaraz azalpena eman zion toponimo bakoitzari)
 - euskaldunak penintsulako lehenengo biztanleen ondorengoak direla
 - gaztelarako hitz guztiak euskaratik datozela
 - euskara hizkuntzarik perfektuena dela

- *Hiztegia*: 1745. urtean argitaratu zen bere azkeneko lan hau. Hiru hizkuntzatan egin zuen: gaztelaniaz, latinaz eta euskaraz, hain zuzen ere. Hiztegi honek bi zati ditu: hitzaurre luzea eta hiztegia bera. Hitzaurrean honako ideiak aurkitzen ditugu: hizkuntza bateratzeko asmoa, erasotzaile ikusten duen gaztelaren kontra jotzen du eta

euskararen apologia. Hala ere, hiztegi honetan, asmatutako hitz asko aurki ditzakegu. Izan ere, Larramendiren asmoa etsaia desarmatzea zen eta barneko (Euskal Herriko) jendea animatzea. Horregatik, eta bere ideiak defendatzeko, hitz asko eta etimologia asko asmatu beharrean ikusi zuen bere burua.

Baina, lehen esan bezala, Larramendik egindako lana oso garrantzitsua izan zen bere eraginarengatik apaiz asko idaztera animatu zelako. Larramendik apaizak gero eta euskara txarragoan aritzen zirela aldarrikatu zuen; eta beren euskara hobetzera animatu zituen, euskararen gramatika sortuz, euskararen apologia eginez eta bere hiztegiaren bidez (honela beren lexikoa hobe zezaten).

OTOITZ BIREN ITZULPENAK

—I—

Jainko misericordioso, indazu arren zuk nai dituzun gauza guziak nik ere gogotik nai izatea, zogiro billatzea, egiazki ezagutzea eta oso ta oro betetzea, zure izen santuaren alabanza ta gloriarako. Zuzen zadazu nere bizi modua eta nik egitea nai dezun guzia, egizu lendanik jakin dezadan, baita egiñ ere bear dan, ta nere animari dagokan bezala. Nere Jauna ta Jainkoa, arren egidazu grazia, munduko atsegiñetan ta atsekabeetan falta eztezadan, ez ayetan goregi, ez oietan beeregi egin nadin. Ez nadilla ezetzaz poztu edo mindu, ezpada zugana naraman edo zugandik kentzen nauen arzaz. Ez nadilla bildurtu zuri besteri gaitzesteaz, ez eta nai ere zuri besteri ederresteaz. Txatar dakizkidala iragankorrak, eta maitagarri zure gauza guziak, ta areago zu zerori. Gogoan jo nazala zubage dan gozoak, eta zure kanpoan danik eztehadala dese. Azkenik nere Jauna ta Jainkoa, indazu arren, ala zure ongitez balia nadin lurrean, zeñean zure atsegiñez goza nadin gero zeruan. Ala biz.

AGUSTIN KARDABERAZ

Hau dugu Larramendiren eraginez idazteari ekin zion apaizetako bat. Hernanin jaio zen 1703. urtean. Jesusen Lagundian ikasi zuen eta jesuita izan zen. Oñati, Azkoitia, Bergara eta Bilboko jesuitetan Teologiako irakasle izan zen. 1731. urtean Loiolan finkatu zen eta Gipuzkoa eta Bizkaia osoan sermoiak ematen ibili zen misiolari. Hizlari onaren ospea lortu zuen honela. Jesuitak penintsulatik kanporatu zituztenean atzerrira joan behar izan zuen; eta Bolognan hil zen 1770. urtean.

Obra asko idatzi zituen, gehienak esparru erlijiosokoak.

- Asteteren dotrina
- *Jesus, Maria eta Joseren deboziñoa*

Bi liburu hauek esparru erlijiosokoak dira. Itzulpenak dira biak; hau da, berak beste hizkuntza batzuetatik euskarara itzultitakoak. Bi liburu hauekin sortzen hasia zen tradizio berritzailearen aitzindari bezala agertzen zaigu Kardaberaz. Honez gain, bizkaieraz idatzi zituenez, bizkaiera idatziaren bultzatzaile izan zen.

***JESUS MARIA, ETA JOSEREN DEBOZIOA
EDO IRU PERSONA DIBINO OIEN
EGIAZKO AMORIOA***

*LURREAN IKUSI ZAN
ZERUKO TRINIDADERIK EDERRENARI,
EDO JAINKOAREN FAMILIARIK SAGRADUENARI*

*JESUS, MARIA, ETA JOSERI
ANIMEN DEBOZIORAKO,
JESUSEN KONPAÑIAKO
AITA AGUSTIN KARDABERAZEK,
BERE BIOTZ GUZIAREKIN
ESKEIÑTZEN ETA KONSAGRATZEN DIENA*

BEAR BEZELA

- *Eusqueraren berri onac*: 1760. urtean argitaratu zen liburu hau. Liburu txikia da, 60 orrialde baino ez ditu. Motibazio erlijiosoa zela medio idatzi zuen Kardaberazek, baina hizkuntzaren inguruko gauzak agertzen dira. Honela, idazterako orduan erabili behar den ortografiaz eta araez dihardu. Lan hau gipuzkeraz idatzi zuen, hizkera erraza erabiliz. Testua oso landua da eta Larramendiri jarraitzen dio: erdi-apologiatik abiatzen da.

***EUSKERAREN
BERRI ONAK***

*eta ondo eskribitzeko,
ondo irakurtzeko, ta ondo
itzegiteko Erreglak:
kura jaun,
ta eskola maisu zelosoai
Jesus-en Konpañiako Aita Agustin
Kardaberaz-ek eskeñtzen, ta
dedikatzen dieztenak.
1761. Urtean.
bear dan bezala.
Iruñean Librugille Antonio Castilla-ren etxean.*

Oсотara hamalauren bat obra aszetiko egin zituen. San Iñazio Loiolakoaren bizitzari buruzko lanak eta euskaraz ongi idatzi, irakurri eta hitz egiteko liburuak idatzi zituen ere,

SEBASTIAN MENDIBURU

Hau dugu Larramendiren eraginez idazteari ekin zion beste apaiz bat. Oiarzunen jaio zen 1708. urtean. 1725.ean jesuita sartu zen, eta ikasketak buruturik Filosofia eta Teologiako irakasle izan zen Iruñean. Bertatik batera eta bestera ibili zen misiotan. Iruñean bertan, San Zernin elizan, mezak euskaraz ematen zituen igandero. Jesuitak kanporatu behar zituztenean preso hartu zuten, Donostiara eraman eta atzerriratu izan zen. Korsikan hil zen 1782. urtean.

Bere lanetan gehien landu zuen gaia erlijioarena izan zen. Honako lan hauek idatzi zituen:

- *Jesusen Bihotzaren Devocioa* (1747. urtean)
- *Otoitz-gaiac* (1759. urtean)
- *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai* (1760. urtean)
- *Euskaldun onaren biziera* (1760. urtean)

Lan hauen guztien ezaugarriak honako hauek dira:

- goi-nafarreraz idatzi zituen
- idazkera garbia erabili zuen
- argudiaketetan indar falta sumatzen da
- estilo zaindua darabil

Beraz, laburbilduz, estiloa zaintzen zuen, joskera garbia erabiltzen zuen eta euskararen baliabideak ongi ezagutzen zituen. Bere hizkera gipuzkera eta goi-nafarreraren artekoa zen, garbia, erdalkeriarik gabekoa.

JESUSEN AMAREN BEDERATZ-URRUNA

Gure Jaun emalleak nai du, dio S. Bernardok, guk ar dezagun, berak ematen digun guzia BIRJIN AMAREN eskutik; eta orregatik nai du, gu izatea AMA berarenak, edo guk egitea gogoso, zuzen ta maiz, BIRJIN AMARI dagozkan deboziozko gauzak.

Oriek era orreran guri eragin naiez, urteoroko berezi dizkigu, gure Jaun emalle-maitagarriak Birjin Amaren emezortzi egun, edo Festa, gutiengan; ta orietatik zenbait beren Zortzi-urrunarekin, edo Zortzi egunekoak; eta JESUSEN Festak ere, zenbaitek beintzat, AMA BIRJINAREN Festak dirudite; bada AMA ere an arkiku oi da Fest orietan, bere Seme maitearekin batean.

Ori ez-ezik, anitz igandetan, urteko anitz egunetan, ta Santuen anitz Festetan ere Elizak gure guzien izenean, otoitz egiten dio Birjina berari; edo, hau arteko arturik, Jangoikoari; eta Elizan ematen diran MEZA guziak ere ematen dira, Jangoikoaren izenean ez-ezik, Birjin Amaren honran ere: ET IN HONOREM B. MARIAE. Elizaz kanpoan ere nai du gure Jangoikoak, oroi gaitezen gu maiz-maiz beraren AMA maitagarriaz; ta, guri geren egiteko hau gogorazteagatik, soñarazten du Eliz-ezkilli goiz-arratsetan, eta eguerdian, gugatik onen baitan Jangoiko bera gizon egin zela, gogoan artuz, erran ditzagun aldian irur ABE MARI. Eta ori obeki guri eragin naiez, Aita Santuak berezi ditu egiten dutenendako, guk len (pag. 13.) adirazi ditugun, induljenziak. Onenbat nai du gure Jangoiko maiteak, gu beraren AMAganatzea, guk haren AMArekin anitz debozione izatea; ta Jangoiko berari eskatzen dioguna ere, guk eskatzea, AMA hau Bitarteko arturik, eta Amari ere otoitz egiten diogula.

Badu beste lan bat, aurrekoetatik zertxobait ezberdintzen dena. Honako hau da:

- *Igande eta festa-egunetarako irakurraldiak:* aurreko liburuetakoz ezaugarriak aurkitzen ditugu lan honetan ere, baina baita beste batzuk ere. Izan ere, lan honetan hizkuntzarekin jolas erretorika darabil eta, honez gain, gauzak ulergarri egiteko sistema bat erabiltzen du: hitz baten ondoan bere sinonimo bat edo gehiago ematea.

Jai-igandetako Eliz-irakurtzak.
Abenduaren lenbiziko igandeko irakurraldia

*Et tunc videbunt Filium Hominis venientem in nube cum potestate magna,
et majestate. Luc. 21.*

*Gaia: Ez bekaturatzeko gogoan
erabilli behar dira iru gauza*

Gaur Jesusek etorkizun izugarri bat agertuz arrerazi nai digu biza-giro dagokiguna, ta arrerazi nai, suleze infernu nekagarritik urrun-erazi ta zeruko ondasunez ta gloriz beterik uzteko. Artako gaur agertzen digun gauza da gure eriotza, eriotzari darraikon kontua ta kontuari dagokan gaiztoen neke gogorra ta onen betiko sari ona ta gloria, ta agerzen digu egungo bere Ebanjelio santuan esaten ta adirazten digunarekin.

Illak arkitzen dira gu baño len bizitu ziranak; illen gara (ta anitz luzatu bage) oraindik bizi garanok eta ill beharrak dira gure ondoren biziko diranak ere. Azkenen ill-hordu hau urbilzen den denboran illunduko da, dio Jesusek, zeruko eguzkia, odolotuko da ango illargia ta galduko dute an bertako izarrak beren tokia. Aserretuko dira elementu guziak eta beldurrez, gosez, egarriz ta lorik ezin egiñez igartuko dira horduko gizonak. Oriek ere alde batera batzuek eta bestera besteak illen dira ta lenago ilzen ez diranak illak utziko ditu azkeneko su, bazter guziak erreak eta auts egiñak uztera Jangoikoak aldi artan igorri-bidaltu beharrak.

NAFARROA

JOAKIN LIZARRAGA

Idazle nafarra dugu hau, “Lizarraga Elkanokoa” izenez ere ezaguna dena. Elkanon jaio zen 1648. urtean. Jesuita zen eta jesuitak Espainiatik egozteko agindua zabaldu zenean, Loiola utzi eta Elkanora itzuli zen. Eliz ikasketak amaitu, apaiztu eta Elkanoko erretorea izan zen hil arte. 1735. urtean hil zen.

Lan ikaragarri zabala egin zuen, baina ez zuen ezer argitaratu. Hauek dira berak idatzitako lanak:

- *Urteco igande guztietaco platicac edo itzaldiac* (1846. urtean argitaratua)
- *Jesus. Copla guisa batzuc gutitacoac, celebratus Iesus Iaunaren amoreac eta favoreac* (1868. urtean argitaratua)
- *Jesu-Cristoren evangelio sandua Juanec dacarran guisara* (1868. urtean argitaratua)

Lizarraga Elkanokoak hegoaldeko goi-nafarreraz idatzi zuen, gaur egun eta aspalditik, galduta dagoen euskalkiaz. Horregatik da hain garrantzitsua bere lana, horri esker euskalki hori hobetu ikertu eta aztertu ahal izan delako. Erabili zuen gaia erlijioarena izan zen eta dena prosaz idatzi zuen. Hala ere, Bonaparte printzeak bertso batzuk argitaratu zizkion. Bertso hauek gai erlijiosozkoak dira eta ahozko literaturaren moldeari jarraitzen diote.

Fede, Esperanza ta Karidadearen Aktak uskaras

Nik sinestazen dut zurebaitan, nere Jangoikoa, Aita Jangoiko, Semea Jangoiko, Espiritu Sandua Jangoiko, irur Persona distinto ta jangoiko bat berdaderoa. Nik sinestazen dut zurebaitan, Jesu-Kristo ene Jauna, Jangoiko ta Gizon egiaskoa, ta zure misterio guzietan. Nik sinestazen dut Aldareko Sakramentu Sanduan, zeintan baizaude ain errealki nola zeruan. Nik sinestazen tut gure fedearen berze misterio guziak, ta nai dut bizi ta il fede goneki.

Dut esperanza zurebaitan, nere Jangoikoa Jesu-Kristoren merejimentue gatik, Maria Santisimaren ta sandu guzien interzesioagatik emanen didazula mundu gontan zure zerbitzazeko grazia ta berzean zure gloria. Nai dut bizi ta il esperanza goneki.

maitazen zaitut, nere Jangoikoa, gauza guziak baño ia, zeuroi zarenagatik infinitoki ona ta maitagarria. Ta maitazentut zure gatik nere proximo guziak. Damu dut, Jauna, zu ofendituas. Dut damu milla aldis. Misericordia, Jauna, Misericordia ta grazia. Amen.

5.2 ANTZERKIAREN SORRERA

Ez zen antzerkiarena izan idazle euskaldunek gehien landutako generoa. Tradizionalki gortearen eta nobleziaren esparruetara uztartua izan da. Dena den, ez da falta gurean tradizio dramatikorik, nahiz eta herri kulturarekin eta ahozketasunarekin gertuago egon den, erlijioari atxikia orohar.

PEDRO IGNAZIO BARRUTIA

Idazle eta antzerkigile arabarra. Aramaion jaioa 1682an, arrasateko eskribaua izan zen eta Hego Euskal Herriko lehen euskal antzerkigile ezaguna izan zen.

Bere lana *Acto para la Nochebuena edo Gabonetako ikuskizuna* da. Ziuraski XVIII.mendearen lehen zatian landua, galduta egon zen 1897ra arte, Juan Carlos Gerrak aurkitu eta Azkuek 1897an *Euskalzale* aldizkarian argitaratu arte. Gabriel Aresti izan zen azterketa sakona egin eta euskaraz ezagutzen den lehen antzerki dramatikoaren literatur balioaz ohartu zen lehena eta hau aldarrikatu zuena.

Lanaren ezaugarriei dagokienez, erlijio antzerkia da hau. Batez ere euskaraz idatzia dago; hala ere, gazteleraz ditu jatorrizko izenburua, akotazioak eta koroak abesten dituen zatiak. Orijinaltasun handiko lana da; izan ere, nahasirik agertzen dira pertsonaiak, tokiak eta garaiak. Liturgia drama honek Kristoren jaiotza irudikatzea du helburu, eta horretarako XVIII. Mendeko Arrasateko bizimoduaren hainbat alderdiren azalpenaz baliatuko da. Ekintza dramatikoa bi mailatan garatuko da: denbora-espazioa bikoizturik agertzen dira (0 urtea / XVIII. Mendea, Belen / Arrasate) eta pertsonaiek ere sistema bikoitz horri erantzuten diote (Kristoren jaiotza / Arrasateko bizimodua, pertsonaia historiko handiak / XVIIIeko arruntak, ...etab). Maila erreala eta fikziozkoa zeharo nahasita agertzen dira.

Metrikari dagokionez, Barrutiaren polimetrikarako joera nabaria da. Eredu labur horiek, halaber, kontra-poesiaren munduaren eragina erakusten dute eta musikaren laguntzaz baliatuak dirudite.

SAN JOSE:

*Adanek ausi eban ezker
Xaunaren mandamendua
Miseriazko balle onetan
Echaku falta llantua
Konbertibidi llantua gozo
Konsolabidi mundua
Guretakoizat jaio da Jesus
Askoren deseada*

VIRGEN:

*Biurrerazazuz orain geugana
Jesusa zure begiak
Ona nun ofrezizen deusut
Munduko bioz gustiak*

ARICHA:

*Beste gauzarik eztozu gura
Ezpada borondatea
Guradozuna geugaz egizu
Zaran ezker xavea*

GABRIEL:

*Milla grazia emon bekioz
Xaio dan infante oni
Ainbat favore zelebrazeke
Danza bat ordenau bidi*

== Fin ==

Canta uno

CANCION:

*Gaur dala gabon gaua, gaur dala gabon
Gaur egiten xaku Xangoikoa gizon
Osbege dambolinak, lutua ken bidi
Fiesta degiogun infante oni
Zerureanik dator gure artera
Erratuai bidia erakustera
Emaitera dator milla barri on
Gaur egiten xaku Xangoikoa gizon
Ezta besteren eske biozak bakarrik
Beretzat gura ditu beste bagarik
Kunplidu egiozu Xaun oni naia
Beroni sal-erozuz bioz guztia
Ordeaz bera zeuri, dakizun emon
Gaur egiten xaku Xangoikoa gizon*

LOS REYES MAGOS:

*Marabilla bat argitu xaku
Amabi egun danean
Besteak baño ederragoa
Izarbat Orientean.*

Zeharo ezberdina izango da, hortaz, neoklasizismoaren itzalpeko antzerkigintza.

XABIER MUNIBE

Peñafloridako kondea ezizenez ezagutua (1729-1785) azkoitiarra zen jaiotzez eta Frantziako Tolosako jesuiten ikastetxe ospetsuan ikasten zebilela ezagutu zituen inguru haietan hedatzen hasiak ziren zientzia eta teknologia esparruko joera berriak. Zientzialaria, idazlea, musikaria eta politikaria izan zen. Probintziako aitonen seme eta jakituria handiko gizonekin biltzen zen literatura, filosofia, zientzia eta historiaz hitz egiteko. Honela, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea sortu zen 1765.urtean eta Munibe bertako partaide izan zen.

Bere lanei dagokionez, musika eta antzerki lanak idatzi zituen.

- *El borracho burlado; ópera cómica en castellano y bascuence* (1764). Opera honek testu elebiduna du; izan ere, kantatzeko zatiak euskaraz agertzen dira. Kondeak berak zuzendutako talde batek antzeztu zuen Bergaran.

SCENA III

*Txanton solo.
Representa.*

*Son el demonio estas hembras.
Ya estaba quasi rendido
A un blando y amable sueño;
Y con tanta gresca y ruido
Me ha despabilado ya.
¿Quién diablos le habrá metido
En venir hasta aquí, cuando
En mi vida yo la digo
Palabra? Pues todo el día
Ni la veo ni la oigo.
¡Oh, y con cuánta razón
Dijo aquel gran vizcaíno:
Auntzak itxi baleio,
Akerrak itxi leio!
Mas ¡hola! De nuevo el sueño
Viene picando un poquito.
Recojámonos a ver
Si puedo quedar dormido.*

Txanton canta medio dormido la siguiente

ARIA

*Ator, ator, Morfeo,
Nere begietara
Ta astundurik lotara
Ezarri egiztak.*

*Nere pena guziak
amets alegreakin,
Emaztea aurrakin,
aztu-erazo egiztak.*

Después de repetida la primera parte queda dormido.

- *Gavon sariac* lana ere idatzi zuen 1762an. Hala ere, lan hau talde lanaren ondorioz sortu zen. Euskarazko gabon kantez osatua dago eta ezizen batekin sinatu zuen (Sor Maria de la Misericordia).

BIGARREN OTSALDIA

Aria

Karkiadearen eta egiazko amorioaren auan

*Au egun zoratzekoa!
Zer poz andia!
Zer atsegiña!
Añ da poz nere gogoa,
Zein da ez dakit zer egiñ.*

Errezitatua

*Jaungoiko andiaren
Esku indartsuak sortutako guziak,
Eguzki eder, illargi, ta izar argiak.
Zeruak, lurra, ta itxaso zabalak,
Atozte, atozte nigana, zeranak.
Kanta ditzagun guzien artean
Jaungoikoaren gloriak gaurko gabeen.
Mendi portitzak, aariak bezela, dantza:
Munotxoak salto, bildotxoen gisara;
Ibar ta madura lau, baso ta txara.
Atozte, atozte nigana, zeranak,
Kanta dezagun guzion artean
Jaungoikoaren gloria, gaurko gabeen.
Arbola orritsu berde, trebola fiñak,
Larrosa, klabeiña eta jazmiñak,
Ibai zabal, osiñez betetakoak,
Erreka berritxutxo itz jarioak,
Itz batean, zerua bere argiak,
Lurra, itxasoaz ta ur guziakiñ;
Ibaiak, arbolak, mendiak eta izarrak,
Atozte, atozte nigana, zeranak,
Kanta dezagun guzion artean
Jaungoikoaren gloria, gaurko gabeen.*

6. BIBLIOGRAFIA

- Salaberri Muñoa, Patxi (2002): Iraupena eta lekukotasuna, Elkar, Donostia.
- Urkizu, Patri (2000): Historia de la literatura vasca. UNED, Madril.
- Kortazar, Jon (2000): Euskal literaturaren historia txikia, Erein, Donostia.
- www.hiru.com/euskal_literatura
- www.armiarma.com
- www.armiarma.com/klasikoak